

AURKIBIDEA

0.-Hitzaurrea	2.orr.
1.-1934ko Urriko Iraultza: Euskal Herriko kasua	5.orr.
1.1.-Iraultzaren aurrekariak	5.orr.
1.2.-Urri Gorria Euskal Herrian	7.orr.
2.-Tolosako XX. mende haserako langile mugimendura hurbilketa	10.orr.
2.1.-Tolosa, hiri industrialala	11.orr.
2.2.-Langile mugimendu tolosarraren hastapen zailak	14.orr.
2.3.-Sozialismoa Tolosan	15.orr.
2.4.-Mugimenduaren bereizketa: Anarkismoaren presentzia	17.orr.
2.5.-1934aren atarian	19.orr.
3.“Tolosa asaldatu zuten zortzi egunak”	22.orr.
3.1.-Tolosako 1934ko Urriko greba iraultzailerako iturriak	22.orr.
3.2.-Greba iraultzailearen gora-beherak (Urriaren 5etik 12ra)	23.orr.
-Urriaren 5a, Ostirala	24.orr.
-Urriaren 6a, Larunbata	26.orr.
-Urriaren 7a, Igandea	30.orr.
-Urriaren 8a, Astelehena	30.orr.
-Urriaren 9a, Asteartea	32.orr.
-Urriaren 10a, Asteazkena	33.orr.
-Urriaren 11a, Osteguna-Urriaren 12, Ostirala: Grebaren azkenak	33.orr.
3.3.-Mendekutik mendekura: Garaileen errepresioa eta galtzaileen erantzuna	34.orr.
-Erregistroak, atxilotuak eta aurkitzen ez diren armak	34.orr.
-Garaileen festa edota “errepresio” sinbolikoa	35.orr.
-Ordenaren defendatzaileek jasotako lezioak eta bestelako “errepresioak”	37.orr.
-Galtzaileen erantzuna	40.orr.
Epilogo – Gerra Kontseiluak eta errepresio berantiarra	41.orr.
Taula	44.orr.
Bibliografia	46.orr.

0.-Hitzaurrea

Atzetik aurrera eginiko lana dugu hau zentzu askotan. Aspektu kronologikoa dugu batetik. Gerra zibilaren ikerketa batetik datorren lan bat da hau izan ere hein batean. Lan honen kokapen kronologikoa 1934koa izanik, 1937-1944ko dokumentuak izan ziren gai honetarako lehenengo hurbilketa ahalbidetu zutenak eta gainera kasualitate hutsez. “Sharing European Memoriesen” baitan, Aranzadi elkarteak Tolosaldeko eta batez ere Tolosako gerra zibilaren memoria, bere zentzu zabalean, aztertzeke martxan jarri zuen proiektuan, bando errepublikarreko tolosarren errepresioaren ikerketa izan zen bere ardatzetako bat eta honen barnean Gerra Kontseilu militarrena. Oraindik ere ikerketa horren azken fruitua argitaratu ez bada ere, difusio helburuz argitaratu zen *1936ko gerrako oroitzapenak Tolosaldean eta Leitzaldean* “laburpen” lanak ekartzen dizkigu prozedura horien lehen datuak. Hauen arabera, gutxienez 501 tolosar izan ziren Kontseilu militar hauen eskuetatik igaro zirenak¹. Kontseilu hauen sententzentzien analisisian prozesatuen biografiatxoak agertzen zitzaizkigun, hauen filiazioak, portaera zintzoa edota gaiztoa, aurrekariak, etab. azaltzen zituen eta hauetako batzuen inguruan data bat eta hilabete bat: 1934ko urria. Errepresioak, gerra zibilean eta honen ostean, eginkizun honetarako antolatu zuen marku juridikoaren barnean Ardura Politikoen Legea (“Ley de Responsabilidades Políticas”) izan zen alderdi politikoen eta erakunde politiko eta sindikal guztien debekuen ostean etorritako hirugarren legea, Serrano Suñerrek “la justicia al revés” deitu zuena². Lege honen bitartez 1934ko urriaren 1etik aurrerako ekintza politikoak, orduan legezkoak zirenak, lege berri honen arabera epai zitezkeen, zuzenbidearen oinarriko printzipioentzat aberrazio bat dena. 1939ko otsailaren 9an promulgatu bazen ere, pentsa liteke, eta data horien aurretik epaitutako 10 tolosarren sententziek pentsatzera eraman gaitzake behinik behin, *de facto*, akusatua delituen astungarri edo “agrabante” bezala behintzat, lehenagotik ere erabiltzen zela.

Harridurazkoa izan zen, pertsonalki, dokumentu hauen agerpena, ziurrenik eraiki izan den Tolosa kontserbadore eta karlista baten irudiak eragindako aurreiritziengatik. Tolosa 1934ko urriko gertakariak gerora ez dute oihartzunik utzi, baina sententzia haietan kaleetatik armaturik ibilitako sindikalistak, lehergailuak,... aipatzen ziren. Akusatua aurkako proben faltsifikazioa izan zitezkeen, gertakariak puzteko modu bat, baina interesa eta jakinmina behinik behin jada piztuta zeuden eta urte, hilabete eta egun haietara hurbiltzeko nahia ere bai, galdera bakarrarekin buruan, ia-ia zeretik hasia baitzen Tolosan emandako greba hura aztertzea: *zer gertatu zen Tolosan 1934ko urriko grebak iraun zuen bitartean?* Lehen begirada batek 18 izen zekartzan, tolosarren 501 gerra kontseiluren artetik portzentaia urria eskaintzen zuena, %3,59 bat. Gainera, jaiotzez tolosarrak izanik ere, Errenterian edota Eibarren topatuko ditugu pare bat, euren bizilekuan, gertakari hauek gertatu zirenean, beste hainbat berriz, nahiz eta gerrak Tolosan topatu, etorkinak izanik pentsa zitezkeen urte hauek jatorriko guneetan topatu zituela sententzietako erreferentzietatik begira. Ondorioz, Tolosan 1934ko gertakarietan ia ziurtasun osoz parte hartu zuten aktoreak 13 pertsonara murrizten ziren, %2,59ra, 12 grebalarren bandoan, 1 garai hartan esan ohi zen “ordenaren defendatzaileen” bandoan. Honek ordea ezer gutxi esan zezakeen grebaren inguruan, kontuan hartzekoa baita sententzietan agertzen diren akusatuen bizitzen deskribapenak ez direla kasu guztietan salbuespen batzuetan bezain aberatsak eta askotan izen batera eta filiazioaren

¹ Errazkin Agirrezabala, Mikel, eta Saizar Arostegi, Joxemi, *1936ko gerrako oroitzapenak Tolosaldean eta Leitzaldean*, Tolosa, Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza, Galtzaundi Euskara Taldea, 2008, 22.orr.

² Riquer, Borja, *Historia de España v.9: La dictadura de Franco*, Madril, Crítica/Marcial Pons, 2010, in Fontana, Josep eta Villares, Ramón (zuz.), *Historia de España Bilduma*, Crítica/Marcial Pons, 127.orr.

aipamenera mugatzen direla, eta bestetik ikusi behar baita 501 prozesatu horiek bando errepublikarreko alderdi politiko guztiek osatzen dituztela eta 1934ko grebarako deia sozialistek bakarrik egin zutela, gerora anarkistak, Asturiasko kasu ezagunean bezala, edota euren alderdi edo sindikatuen aginduei jarraitu ez zieten euskal nazionalista batzuk elkartu bazitzaizkien ere³. Abiapuntua, beraz, finkaturik zegoen.

Metodologiari begira ere atzetik aurrera egin behar izan da lana, bibliografiak, edota hobeto esanda honen ausentziak, baldintzaturik. Pentsa liteke ikerketa historikoaren metodo paradigmaticoa orokortasunetik partikularitatera jotzea dela; testuinguru internazional eta nazionaletatik *zooma* jopuntuari begira hurbildu behar litzateke. Era berean, beste autore eta ikerlariak eginiko lanetara jotzea ere abiapuntu hauek markatzeko ohiko prozedura izaten da auzi praktiko batengatik: ikerlari guztiek euren lanak zerotik, hau da, dokumentu primarioetatik, hasi beharko balituzte, zientzia historikoak nekez egingo luke aurrera. Kontua ordea bestelakoa zen kasu honetan. 1934ko Urriarekin loturiko Tolosaren aipamenak zinez urriak dira, ia existitzen ez direla ez esateagatik. Atal bakoitzean bakoitzaren problematika aztertuko badugu ere, esan behar da bai Gipuzkoaren edota orokorrean Euskal Herriaren inguruan greba honen inguruan egin dena antzeko panoraman topatzen dela, halako punturaino ezen espreski Euskal Herriari eta 1934ko gertakariei eskeinitako lan bakarrak bi diren: Juan Pablo Fusiren *Nacionalismo y revolución: Octubre de 1934 en el País Vasco* (1985), 1934ko Urriko Iraultzaren inguruko beste hainbat lan biltzen dituen bilduman topatzen dena eta *El País Vasco 1931-1937* (2002) bere liburuan izen bereko kapitulua osatuz agertzen zaiguna, aldaketarik gabe, eta José Luis de la Granjaren *1934: Un año decisivo en el País Vasco. Nacionalismo, Socialismo y Revolución*, 2004an Sancho el Sabion argitaratua eta *El Oasis Vasco* (2007) bere liburuko kapitulu bilakatu dena. Azken artikulua, ordea, ez du berritasun handiegirik erakusten Fusiren azalpenarekiko eta gainera, izenburuek erakusten duten bezala, artikuluen helburu nagusietako bat II. Errepublikaren historiografiako gai izarra da, euskal nazionalismoa, kasu honetan nazionalismoaren parte hartzearen edo parte hartze ezaren bilaketan zentratzen dena. Bibliografiaren problematika honetan aurrerago sakondu behar badugu ere, Fusik 1985ean bere artikuluan zioena oraindik ere egunean dagoela iruditzen zait: “No hay ningún estudio de la revolución del 34 en el País Vasco. Las referencias a la misma tanto en libros de historia vasca como en libros de índole general están llenas de imprecisiones”⁴. Egoerak horretan darrai.

Prentsak ere lehen begiratuan fruitu handiegirik eman ez zuenez kasuaren inguruan, ezer ere gertatu ez zela pentsatzera eramateraino, lehen mailako dokumentuetara zuzenki jotzea izan zen hartutako erabakia. Tolosako Udal artxiboa izan zen lehen gerturaketa sakonena, ez bereziki gertakarien inguruko erreferentzia handiegirik ematen zuelako, baizik eta garaiko protagonistekin, gertakari solteekin, handik eta hemendik agertzen ziren bando, gutun, telegrama eta edozerrekin 8 egun haien koadroko lehen zertzeladak ematea ahalbidetu zuelako: kronologia bat finkatzea, grebaren errepresioa antolatuko zuen Fidel Azurza alkatearekin lehen hurbilketa izatea bere gutun eta udal akten bitartez, Udako krisi batetik zetorren udal batzar batekin kontaktuan ipintzea, greban euren borondatearen aurka parte hartu behar izan zutela zioten langileen kexa gutunak galdutako soldatak eskatuz, goardia municipal errebeldeak,... Artxiboak ordea hutsune handiak zituen. Interesezkoak ziren egunetako gutunik ez da erregistraturik eta artxibaturik geratu. Urriaren 5etik Azaroaren 6ra

³ Granja Sainz, José Luis de, *El oasis vasco, el nacimiento de Euskadi en la República y la Guerra Civil*, Madrid, Tecnos, 2007, 256.orr.

⁴ Fusi Aizpurua, Juan Pablo, “Nacionalismo y revolución: Octubre de 1934 en el País Vasco”, in Jackson, G. (koautorea), *Octubre 1934: Cincuenta años para la reflexión*, Madrid, Siglo XXI, 1985, 177.orr.

bitarteko gutunak dira, hain zuzen, falta direnak. Udal batzarretan ere ez zen gaiaz gehiegi hitz egin edota erabakirik hartu gertakarien inguruan. Honen azalpena Tolosa kontrol militarpean ipini zela izan liteke eta ondorioz dokumentazioa autoritate militarrek ekoitzia izan zela, hauen artxiboetan topatzen direla ondorioztatuz, gerra garaiko kalamitaterik jasan ez badute behinik behin.

Artxiboek ematen zuten informazio murriztaren aurrean Tolosan ezer handirik gertatu ez zela pentsatuz eta ondorioz lan honen hipotesia izan zitekeena, hau da, Tolosan izatez mugimendu grebalari nahiko sakona egon zela eta bere kasua aipatua izan ez bada askotan Eibarrek edota Arrasatek Gipuzkoa osoaren gainean egin duten itzalagatik edota lehen aipatzen genuen Tolosaren irudi kontserbadoreagatik izan zela, pikutara joan zitekeen. Prentsaren bigarren gainbegirada batek, batez ere Donostiako Udal Hemeroketaren bitartez, ekarri zuen falta zen pieza, Tolosako gertakarien eguneko eguneko kronika “El Día” egunkari nazionalistan, aurrerago sakonago aztertuko duguna baina hein handi batean, esan dezaket, hipotesiaren baieztapena justifikatzera etorri zena. Kontakizuna batez ere egunkari ezberdinetan oinarrituz eta Tolosako artxiboko dokumentuekin han-hemendik osatuz, egituratu da hain zuzen lan honen gai zentrala, 1934ko 8 greba egunak. Gero Tolosako langile mugimenduaren antolaketan eta Tolosako historiaren aurrekarietan sartu nahi izan da muturra, gertakarien garapen bidea hobeto ulertze aldera eta hiri honen inguruko lan historiko guztietan ahaztu den gertakaria gogorarazte aldera. Azken instantzian lehen aipaturiko 34ari buruzko lan orokorretara jo da, testuinguru orokor baten bila, lan hauen hutsuneak ikusiz eta ondorioak erkatuz.

Lehen aipatu da bibliografiarik ez egoteak ekar dezakeen desabantaila ikerketa bat egiterakoan, hau da, lana zerotik hasi beharra, aktoreek beraiek ukitu zituzten gutun eta dokumentuetatik hasia. Hala ere, abantaila bat gordetzen du bere barnean. Gaiaren inguruko jakintza nulua denez, inork ez du ezer esan honen inguruan eta ondorioz, ikerketari ekiteko momentuan, ez dago gertakari puntual hauen inguruan aurrez buruan eginiko eskemarik. Izatez, behin Tolosako gertakariak aztertu ostean eta ondorio batzuk zirriborratzean Fusira edota de la Granjara itzultzea benetan interesgarria izan da, elementu asko ez baitatoz bat. Ziurrenik hauek proposaturiko azalpenak buruan izanez gero beste begi batzuekin begiratuko ziren irakurtzen ziren prozesuak eta aurretiaz eginiko eskema horretan Tolosa nola txertatu bilatuko zen, baina ez da zama hori gainean izan. Ikerketa atzetik aurrera egin bada ere, lanaren egituraketa aurretik atzerakoa izan da ulergarritasunaren bidean eta Tolosaren gertakarien azalpen soiletik hasia irla bat bezala gera ez dadin. Zentzu horretan, lehen pausua 1934ko Urriko Euskal Herrira eta Espainiara bere orokortasunean hurbiltzea izan da, greba haren ezaugarri orokorrenak bilatze aldera. Bigarren puntu batean Tolosaren aurrekari historikoak azalduko dira, batez ere bere bilakabide industrialean, langile klasearen sorreran eta honen antolaketa moduetan azpimarra eginez. Hirugarren eta azken puntua berriz, 1934ko Urriaren 5etik 12rako zortzi egunak eta hauen ondorioak Tolosan azaltzea izango da, ikerketaren ardatz zentrala alegia.

1.-1934ko Urriko Iraultza: Euskal Herriko kasua

1934ko greba iraultzailearen analisiak, bibliografia aldetik, ez du inongo zailtasunik erakusten hau Estatu mailan hartzen badugu. Aldekoak, aurkakoak, gerra zibilaren hasera epea 1934an kokatzen dutenak (Pío Molar), kolore guztietako joera eta iritziak, topa ditzakegu bibliografia zabal batean. Asturias izan da, noski, ikerketa gehien zentrua ordea, iraultza urrunen iritsi zen gunea. Ikerketa historikoa egiterako orduan ordea selektiboa izateak bere abantailak izan baditu ere (prozesu sakonena eman zen gunea sakonkien azterturik egotea, esaterko) bere desabantailak ere badakartza, gainerako lurraldeen gainean itzala egiten baitu, halako punturaino ezen azkenerako badirudien ez zela ezertxo ere gertatu gune haietan, azken finean Gipuzkoaren kasuan Eibarren edota Arrasateren errepikapen etengabeak gainerako lurralde osoa desertu mantendu izanaren ideia ematera jo dezakeen bezala. Egun haietako estatu mailako egunkari bat besterik hartu beharrik ez dago (*ABC* bat, edota *La Vanguardia* bat) grebaren berriak, eta biolentziatzko berriak gainera, Espainiako ia probintzia guztietatik datozela ikusteko. Euskal Herria kontsideratu izan da gertakarien larritasunari begira hirugarren gune garrantzitsuena, Asturiasen eta Kataluniaren ostean⁵, baina hala ere ez zaio ikerketa jakin bat eskaini, aurreko bi artikulu horietan salbu. Gainerako azalpenak Espainiaren Historiako eskuliburuetakoa aipamen laburrak, Euskal Herriaren Historiaren inguruko eskuliburuetan harrigarriro eskaintzen zaizkion aipamen laburragoak, euskal sozialismoaren⁶, langile mugimendu gipuzkoarraren⁷ edota Euskal Herriko Errepublikaren inguruko lanetan eskaintzen zaizkien kapitulutxoak edota tokian tokian edota hirien historiari lotuta idatzi diren lanak⁸. Izatez pobrea da egoera hau eta harrigarria oraindik ere Euskal Herriari eskeinitako lan orokor bat ez topatzea gai honen inguruan oraindik ere. Atal honetan gerora Tolosaren kasuari begira balioko diguten lerro orokorrak azaltzen saiatuko gara.

1.1-Iraultzaren aurrekariak

Askitan aipatzen den bezala CEDAko hiru ministro Lerrouxen gobernuan sartzea izan zen mugimendu iraultzaile honen azken pizgarria⁹, mugimenduaren prestaketa lehendik ere martxan baitzen eta inprobisaketatik dirudiena baino gutxiago izan zuela baitirudi¹⁰. Urte hartan Udaberria, Uda eta Udazkena izango ziren beroak. Eskuineko gobernu aurreko gobernu errepublikar-sozialistaren neurriak atzera botatzen ari zen. Konfesio eta Kongregazio Erlijiosoen legea gelditu egin zuten, Sanjurjadako partehartzaileei amnistia eman zitzaizen,¹¹ Polarizazioaren sakontze prozesu horretan Lerrouxek berak dimisioa aurkeztu zuen amnistia lege honetatik bost egunetara eta

⁵ *Ibidem*, 177.orr.

⁶ Miralles, Ricardo, *El socialismo vasco durante la II República*, Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitarapen Zerbitzua, 1988.

⁷ Barruso Barés, Pedro, *El movimiento obrero en Guipúzcoa durante la II República. Organizaciones obreras y dinámica sindical*, Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia, 1996.

⁸ Etxaniz, Jose Ángel, "Gernika-Lumo 1934. De un verano caliente a un octubre revolucionario", *Aldaba* (Gernika), 1994 eta 1995, 71, 72 eta 73 aleak; Gutierrez Arosa, Jesús, *La insurrección de octubre del 34 y la II República en Eibar*, Eibar, Eibarko Udala, 2001; Urriko gertakariak biltzeko sustatu diren inizatibak: http://www.intxorta.org/castellano/?page_id=31

⁹ Tuñón de Lara, Manuel (zuz.), *Historia de España 9: La crisis del Estado: Dictadura, República, Guerra (1923-1939)*, Bartzelona, Labor, 1985, 193.orr.

¹⁰ Gil Pecharromán, Julio, *Historia de la Segunda República Española, 1931-1936*, Madril, Biblioteca Nueva, 2002, 212.orr.

¹¹ Casanova, Julián, *Historia de España v.8: República y guerra civil*, Madril, Crítica/Marcial Pons, 2007, in Fontana, Josep eta Villares, Ramón (zuz.), *Historia de España Bilduma*, Crítica/Marcial Pons, 435.orr.

Samper ipiniko da exekutiboaren buru bezala bere lekuan. Euskal Herriaren kasuan auzi autonomista ari zen giroa berotzen. Estatutua Gorteetan aurkeztu zen unean José Luis Oriol diputatu karlista arabarrak Arabako auzia planteatu zuen, bertan Estatutuaren inguruko erreferendumean, abstentzio maila handia zela eta, baiezkoak botuen erdia baino gehiago eskuratu ez zuela azalduz.¹² Argudio honen aitzakia erabiliz Estatutuaren prozesua blokeatu zuen gobernuak, gerra garairarte berpiztuko ez dena. Era berean euskal langile mugimendua erradikalizazio prozesu orokorraren barnean aurkitzen zen eta horren adierazle izan ziren urtarrilean eta otsailean Bilbon eta honen inguruetan sozialistek eta komunistek bultzatu zituzten bi greba politiko bateratuak, batez ere Parisko eta Vienako gertakariei lotuta jazo zirenak¹³.

Ez zitzaion agintaldi erraza suertatu Samperri. FETTak antolaturik nekazarien greba orokor bat burutu zen, 10-15 egun iraun zituena¹⁴. Madrilen, Bartzelonan edota Zaragozan krisi soziala eta langileen gatazkakortasuna goraldean zeuden¹⁵. Apirilean, Kataluniako parlamentuak (Lliga bere aurka zuen parlamentu batek, hau abandonatu zuelarik, eta ondorioz ERCK kontrolatzen zuenak) Laborantza lurren gaineko Kontratuen Lege bat onartu zuen, zeinaren arabera maizterrak errentan hartutako lurak gutxienez 6 urtetan hau lantzeko eskubidea zuen eta epe jakin baten ostean hau erostekoa. Lurjabeei ez zitzaion lege hau bat ere gustatu eta Bermeen Epaitegiak inkonstituzionaltzat jo zuen. ERCak jarrera tinkoa erakutsi zuen gobernuaren aurrean autonomiaren aurkako eraso bezala salatuz eta Gortea utziz¹⁶. Euskal nazionalismoak bere babesa eman zion Esquerraren jarrerari, beraiek ere Gortea abandonatuz. Era berean beste gatazka bat sortu zen, ardoaren gaineko zergen kontuekin lotuta eta estatu mailako esangura hartuko zuena: euskal udalen “errebolta”. Ekainetik irailera bitartean iraungo zuen Kontzertu Ekonomikoaren aurka zihoala argudiatzen zen gobernuaren Ardoaren Estatutuaren aurkako protesta honek. Gobernuaren negoziatzeko Komisio bat eratu nahi izan zen eta euskal udalek aukeraturiko Asanbladak burutu, kataluniar diputatuen partehartzearekin, gobernuaren neurri hauei aurre egiteko. Alkate eta zinegotzi askok euren dimisioak aurkeztu zituzten, gobernuak ezarritako Gestorengatik aldatuak izan zirelarik, eta beste asko atxilotuak eta prozesatuak izan ziren. Gatazka honen interesa errepublikarrak, sozialistak eta nazionalistak elkartzeko joera erakutsi izan zutenean datza, bakoitzak bere interesengatik, aurre egin nahi ziotelako Estatutuari¹⁷.

Hauxe zen iraileko egoera Euskal Herrian, Urriko gertakarien atarian. Gertakizun hauek euren islada sakona izango dute kasu tolosarrean, aurrerago ikusiko dugun bezala, bete-betean parte hartu baitzuten prozesu honetan. Bestetik Fusiren edota de la Granjaren interes nagusia nazionalistek greban parte hartu zuten edo ez determinatzea izan da. Ez da lan honen helburua hori argitzea, baina Tolosako gertakarietan ere bere presentzia izango du gai honek. Urriaren aurreko une honetan

¹² Fusi Aizpurua, Juan Pablo, “Nacionalismo y revolución: Octubre de 1934 en el País Vasco”, in Jackson, G. (koautorea), *Octubre 1934: Cincuenta años para la reflexión*, Madrid, Siglo XXI, 1985, 178.orr.

¹³ Granja Sainz, José Luis de, *El oasis vasco, el nacimiento de Euskadi en la República y la Guerra Civil*, Madril, Tecnos, 2007, 249.orr.

¹⁴ Casanova, Julián, *Historia de España v.8: República y guerra civil*, Madril, Crítica/Marcial Pons, 2007, in Fontana, Josep eta Villares, Ramón (zuz.), *Historia de España Bilduma*, Crítica/Marcial Pons, 125.orr.

¹⁵ *Ibidem*, 124.orr.

¹⁶ Gil Pecharromán, Julio, *Historia de la Segunda República Española, 1931-1936*, Madril, Biblioteca Nueva, 2002, 210.orr.

¹⁷ Fusi Aizpurua, Juan Pablo, “Nacionalismo y revolución: Octubre de 1934 en el País Vasco”, in Jackson, G. (koautorea), *Octubre 1934: Cincuenta años para la reflexión*, Madrid, Siglo XXI, 1985, 180.orr.

esango dugun gauza bakarra zera da, EAJk mugimendu iraultzailean ez parte hartzeko erabakia hartu zuela. *La Gaceta del Nortera* igorritako gutunean José Horn y Areilza gutxiengo parlamentario nazionalistaren buruak honakoa zioen:

“...el Consejo Supremo del Partido Nacionalista Vasco conforme con el asesoramiento de la minoría parlamentaria, a la que oyó y consultó, no sólo no resolvió participar en el rumoreado movimiento, sino que acordó precisamente todo lo contrario, o sea, no apoyar ni contribuir en el que se anunciaba como “huelga general revolucionaria””¹⁸.

Gero, urriaren 3an, Madriletik ezkerak egindako proposamenari uko egin zion Agirrek, eta euren afiliatuei neurri argiak eman zitzaizkien: “*Abstención, absoluta abstención, de participar en movimiento de ninguna clase prestando atención a las órdenes que en caso preciso serán dadas por las autoridades*”¹⁹. ELAk emandako aginduak ere antzeko bidetik jarraitu zuten: “*Allá donde pueda trabajarse sin peligro, acudan todos los trabajadores a sus labores, pero si para ello encontraran alguna dificultad o peligro, retírense sin participar en ninguna actividad no ordenada por la agrupación*”²⁰. De la Granjak beste datu bat gehitzen du: “*Al producirse ese mismo día [urriaren 1a] la crisis gubernamental, los diputados nacionalistas vascos aconsejaron a los de la Esquerra que no se sumasen al movimiento revolucionario anunciado en el caso de que la CEDA entrase a formar parte del Gobierno*”²¹. Badirudi gerora desberdintasunak egongo direla alderdi eta sindikatu honen zuzendaritzek agindutakoaren eta euren oinarrietako afiliatuen ekinbidearen artean baina Tolosan ikus daitezkeen elementuen harira aurrerago helduko diogu horri.

1.2.-Urri Gorria Euskal Herrian

Kataluniako auzia urrun iritsi zen. ERCK armakuntzari ekin zion eta Samperrek negoziatioetara iritsi behar izan zuen gobernu kataluniarrekin, Amadeu Hurtado eta Martí Esteve ordezkariekin negoziaketak burutuz legearen klausulak aldatzeko. Irailaren 21ean eman zuten argitara negoziatioz hontatik atera zen akordioa, baina CEDAk akordio hau Korteetan aurkeztuko zen unea bera aprobetxatuko zuen Gabinetearen gainbehera bultzatzeko²². Urriaren 1eko Samperren dimisioarekin Lerroux itzuliko da bere iraganeko kargura eta urriaren 4an CEDAko hiru ministrok gobernu berrian parte hartuko dutela berri ematen da. Largo Caballero, UGTaren idazkari nagusiak eta PSOEn presidentek, eta mugimendu iraultzailearen antolatzaileak, grebari ekiteko unea dela ikusiko du eta urriaren 5an estatuko hiri industrial guztiak gelditurik aurkituko dira. Bien bitartean gobernu ez du bat-batean harrapatu mugimenduak, armen deposituen topaketak eman baitira, eta horrexegatik, urriaren 4rako tropak

¹⁸ Fusik aipatua. Fusi Aizpurua, Juan Pablo, “Nacionalismo y revolución: Octubre de 1934 en el País Vasco”, in Jackson, G. (koautorea), *Octubre 1934: Cincuenta años para la reflexión*, Madrid, Siglo XXI, 1985, 182.orr.

¹⁹ Fusik aipatua. *Ibidem*.

²⁰ De la Granjak aipatua. Granja Sainz, José Luis de, *El oasis vasco, el nacimiento de Euskadi en la República y la Guerra Civil*, Madril, Tecnos, 2007, 255.orr.

²¹ *Ibidem*, 253.orr.

²² Gil Pecharromán, Julio, *Historia de la Segunda República Española, 1931-1936*, Madril, Biblioteca Nueva, 2002, 210.orr.

akuartelaturik egongo dira²³. Euskal Herriaren kasuan antzerakoak izango dira gatazka honetako aktoreak, bere berezitasuna ustezko parte hartze nazionalista bati dagokiolarik, nahiz eta Kataluniaren kasuan bezala mugimenduak kutsu nazionalista edota minimoki autonomista bat hartu ez. UGTren planari jarraiki euskal langileriak greban esanguratsuki hartuko du parte, batez ere Gipuzkoan, Bizkaian baino gehiago, eta Araban edota Nafarroan saiakera partzial batzuk emango dira baina ez da orokortuko²⁴.

Euskal Herriak eginkizun jakin bat zuen estatu mailako grebaren antolaketaren baitan. Amaro del Rosalek, mugimendu iraultzailea antolatzen aritu zen UGTko zuzendaritza nazionaleko kideak, Indalecio Prietorekin batera mugimenduarentzat armak lortzea eginkizun izan zuenak, bere lanean azaltzen digunez hain zuzen Euskal Herriak armen hornitzaile izatearen papera zuen estrategia matxino orokorraren barnean. “Comité de Enlace” delakoak ziren eginkizun hau bideratuko zutenak, del Rosalen arabera militante bizkaitar eta gipuzkoar, zahar eta gazte, serioek osatuak. Hain justu Enrique de Francisco izango dugu “Comité Nacional de Enlace”aren idazkaria, aldi berean Eibarko “Alfa” arma ekoizpen kooperatibaren fundatzaile eta zuzendarietako bat²⁵, eta kasualki, aurrerago ikusiko dugun bezala, Tolosako mugimendu sozialistaren sortzaile eta antolatzailer nagusia kontsideratu daitekeena, mugimendu iraultzailearen garaian PSOEn komisio exekutiboko idazkaria zelarik²⁶. Euskal Herrian biltzen ziren armen ekoizpena eta bertatik burutuko zen hauen banaketa probintzia osora.

Gil Pecharrománek hiru multzotan sailkatzen du estatu osoa mobilizazioaren sakontasuna azaltzerako orduan: sakonena Asturias eta Leon iparraldean emango zen batetik, bigarren maila batean, “conatos formales de insurrección armada” zituztelako, Madril, Euskal Herria eta Katalunia topatuko lirakeke bestetik, Sevilla, Kordoba, Valentzia eta Zaragozako gertakari baketsuak edukiko genituzke azkenik²⁷. De la Granjak, David Ruiz 1934ko gertakarietan aditua denak ezarritako eskema bat jarraituz, beste azpisailkapen bat azaltzen du Euskal Herriari bakarrik begira: iraultza, izen hori merezi duena, autorearen hitzetan, Eibarren eta Arrasaten gertatu zen, udalak hartu zituzten eta bi herriak kontrolatu, hilketa politikoak gertatu ziren (Marcelino Oreja Bizkaiatik aurkeztutako diputatu karlistaren kasu famatua, aldi berean gune hartako enpresaria zena, Unión Cerrajera de Mondragónen presidentea hain zuzen, eta Carlos Larrañaga tradizionalistarena eta Unión Cerrajerako kontseilaria zen Dagoberto Rezustarena), baina goardia zibilen koartelen asaltoan ez zuten arrakastarik izan eta militarki zapalduak izan ziren; bigarren mailan, greba intsurrekzionala deitzen duena meatze gune bizkaitarrean, Bilboko gerriko industrialean eta Donostia inguruko industria eta arrantza nukleoetan (Pasaia, Errenteria, Hernani) emango zen, autorearen arabera; azken puntuan berriz greba orokor pasiboa deiturikoa legoke, Bilbon, Donostian, Balmasedan, Gernikan, Irunen, Soraluzen, Zumarragan, Beasainen, Bergaran, etab.en eman zena.²⁸ Eta zerrenda hemen amaitzen da. Tolosa ezin jakin “eta abar” horretan sartzen den edo ez.

²³ Tuñón de Lara, Manuel (zuz.), *Historia de España 9: La crisis del Estado: Dictadura, República, Guerra (1923-1939)*, Bartzelona, Labor, 1985, 193.orr.

²⁴ Fusi Aizpurua, Juan Pablo, “Nacionalismo y revolución: Octubre de 1934 en el País Vasco”, in Jackson, G. (koautorea), *Octubre 1934: Cincuenta años para la reflexión*, Madrid, Siglo XXI, 1985, 184.orr.

²⁵ Rosal, Amaro del, *1934: El movimiento revolucionario de Octubre*, Madril, Akal, 1983, 238.orr.

²⁶ *Ibidem*, 326.orr.

²⁷ Gil Pecharromán, Julio, *Historia de la Segunda República Española, 1931-1936*, Madril, Biblioteca Nueva, 2002, 214.orr.

²⁸ Granja Sainz, José Luis de, *El oasis vasco, el nacimiento de Euskadi en la República y la Guerra Civil*, Madril, Tecnos, 2007, 254.orr.

Fusik berriz hildakoen jatorria erabiliko du iraultzaren puntu neuralgikoak markatzerako orduan eta sailkapena ondorengo eran gelditzen da: Bilbo (16 hildako), Eibar (6), Arrasate (6), Pasaia (6), Portugalete (3), Durango (2), Donostia (2), Tolosa (1), eta Barakaldo eta Balmasedakoak baieztatzeke²⁹, noski, sakontasun maila hildakoen kopuruaren arabera zehaztu gabe. Aurrerago azaltzen duenez matxinada izaera bakarria Eibarren eta Arrasaten izango zuen, non sozialismoa eta komunismoa aldarrikatu ziren, eta Bizkaiako meatzeetako gertakariak berriz erresistentziarik gabeko okupazioa izan zen, urrunago joan ez zena eta Bilbon ere ekintza estrategikoa burutu zen hiriburuaren paralizazioa eta isolamendua bilatze aldera. Gune hauetatik kanpo, Fusiren ustez, greba baketsua izan zen (Donostia, Irun, Tolosa, Beasain, Errenteria, Hernani, Bergara eta abar zerrendatzen ditu) gertakari isolatu batzuk, intentsitate handiagoko edota txikiagokoak gertatu baziren ere (indar publikoaren aurkako tiroketak, honen kargak, piketeen ekintzak, petardoren baten leherketak,... aipatzen ditu)³⁰. Pasaia kasu bereziagotzat hartzen du tiroketa batean gertatu zen 6 pertsonaren hilketa dela eta. Hau irakurrita, hiri hauetan grebak izaera baketsua izan zuela azalduz, eta zerrendaturiko “gertakari isolatuak” modu, esan genezake, nahiko arinean aipatuta, badirudi ezer handirik eman ez zela gune hauetan. Zinez gertakari sakontzat hartuko genituzke, behinik behin egungo ikuspegitik, halako hirietan indar publikoen eta grebalarien arteko tiroketak egotea, petardoak (askotan petardotik gutxi izango dutenak) ipintzea, hildakoak egotea, ezin ahaztu baitaiteke hildakoen kopuruak lehen emandakoak badira ere zaurituak ere ugari izan zirela egun hauetan. Azken finean halako sailkapene azalpen helburu bat izan dezakete sailkapen bat eta ondorioz honek exijitzen dituen gradazio parametro batzuk finkatzea beharrezkoa egiten baitu honek, baina aldi berean gertakariak sinplifikatu egiten dira aurrerago ikusiko ditugun Tolosako gertaerak baketsutzat kalifikatzeraino (eta ziurrenik gainerako hiriekin ere antzeko zerbaiz gertatzen da). Aurrerago ikusiko dugu ordea sailkapen hauetan zein den errealitatean Tolosako zortzi egun haiek merezi duten postua.

Kronologiaren aldetik Fusik datak planteatzean, hau da, urriaren 5ean hasi baina 6tik aurrera jada mugimendua amaiturik zegoela esaten duenean, Donostiako edota Pasaiako salbuespenekin, edota 8tik aurrera jada normaltasunerako tendentzia aipatzen dituenean, nahiko eztabaidagarriak diren baieztapenak egiten ditu, Tolosako kasuan ikusiko dugun bezala. Hala ere, greba guneetarako planteatzen duen ondorengo eskemak bete-betean jotzen du Tolosan gertatu ziren gertakariekin:

“...paralización absoluta del trabajo en factorías, talleres y oficinas, mediante coacciones de piquetes en caso preciso; cierre de comercios, también mediante intimidaciones donde fue necesario; corte de las comunicaciones y del abastecimiento a las capitales y localidades importantes, forzándose el colapso del tráfico de ferrocarriles de largo recorrido y cercanías, líneas de autobuses y tranvías urbanos (mediante levantamiento de vías, barricadas, derribo de árboles, tiroteos contra tranvías y coches, etc.); hostigación armada continua a las fuerzas del orden, incluyendo intentos de asalto a cuarteles de la Guardia Civil; tentativa de ocupación de

²⁹ Fusi Aizpurua, Juan Pablo, “Nacionalismo y revolución: Octubre de 1934 en el País Vasco”, in Jackson, G. (koautorea), *Octubre 1934: Cincuenta años para la reflexión*, Madrid, Siglo XXI, 1985, 183.orr.

³⁰ *Ibidem*, 186.orr..

lugares estratégicos (puentes, centrales eléctricas, correos, telégrafos, depósitos de agua, etc.).”³¹

Desberdintasun oso gutxirekin hauxe izango da Tolosan errepikatuko den eskema, hain zuzen ere, greba baketsu batekin oso kontrajarririk aurkituko den eskema, lanean zehar hori argudiatzea helburu nagusietako bat izango delarik.

2.-Tolosako XX. mende haserako langile mugimendura hurbilketa

Lanean zehar behin eta berriro errepikatua izan den erretolika da Tolosaren 1934ko gertakarietaz ez dela ezer handirik idatzi, edota hobeto esanda, ezertxo ere ez dela idatzi. Berriz errepikatzea ez da gaizki etorriko, batez ere Tolosaren inguruko lanik hurbilenetakoetan. Federico de Zavalaren eta Juan Garmendiaren *Monografía histórica de la villa de Tolosan* 1934 urteari egiten zaion erreferentzia bakarra tolosarren boxeoarekiko afizioa aipatzeko bakarrik da. Nazionalismoarekin lotuta, Tolosaren bizitza politikoa, hein handi batean II. Errepublikan zentratuz, azaltzen duen Jose Antonio Rodríguez Ranzek koordinaturiko *Tolosa, euskal abertzaletasunaren bihotza* lanean ere udako udal krisiaz hitz egingo da eta baita gerra zibilaz ere, baina tartean hutsunea gelditzen da. Ausentzia esanguratsua goen bila hor dugu Barrusoren, Blazquezen eta Villanuevaren *Cien años de socialismo en Tolosa, 1891-1991*, Tolosako Agrupazio Sozialistaren historia auzkezten digun lana. Hemen diktadura primorriveristatik frankistara egiten da jauzia, tartea bete gabe, eta 1934ko Urriaren aipamen bakarra transkribatzen den sozialista tolosar baten testigantzan bakarrik topa dezakegu, gertakariaren garaian Tolosan ez zegoena.

Galde liteke beraz ea nondik datorren halako insistentzia ezer ez dagoela dirudien puntu batean zerbait aurkitzeko. Galdetu beharko litzateke ea nondik nora sortu diren halako hutsuneak 1934ko grebari begira. Errestaurazio garaiko edota II. Errepublikako hauteskunde mapa bat hartzen badugu orokorrean Tolosa kolore karlistez margoturik topatuko dugu eta hauteskunde datuei begira udal mailan karlismoak (bere adar ezberdinak kontuan hartuta), botuen gehiengoa lortuz, 1916tik³² II. Errepublikaren amaierararte iraungo luke³³. Horrek Tolosa kasu berezitat hartzera eraman gaitzake baina aldi berean erakusten digu hauteskunde datuen bitartez eginiko analisi historiko batek zein hutsune handiak erakutsi ditzakeen errealitateak estaltzerako orduan. Tolosaren irudi karlista imaginarioan ongi grabaturik geratu bada ere, datu hauenpean gordetzen den errealitatea anitzagoa eta konplexuagoa da. II. Errepublikaren garaian, batez ere, karlismoa aukerarik bozkatuena bada ere, horrek ez du esan nahi alderdi maioritarioa izango denik. 8 karlistak (5 tradizionalistak, 2 integristak, jaimista 1ek), 5 euskal abertzalek, 4 errepublikazalek eta sozialista 1ek osatuko dute Errepublikako lehendabiziko udalbatza³⁴. Rodríguez Ranzek Gipuzkoako II. Errepublika garaiko hauteskunderi buruz eginiko tesian azaltzen duen bezala Tolosa “Gipuzkoa hiritarra” deiturikoan kokatu beharko genuke, bere elementuen artean urbanizazio, demografia eta industrializazio aldetik probintzia mailako gune garatuenak topatzen direlarik³⁵ eta

³¹ *Ibidem*, 185.orr. .

³²

<http://www.euskomedia.org/aunamendi/140964/95528?q=elecciones+tolosa&partialfields=fondo%3Aau%25F1amendi&numreg=3&start=0>

³³ Rodríguez Ranz, Jose Antonio, García Ocampo, María Begoña, “II. Errepublika: Euskal abertzaletasunaren ilusioa, dinamismoa eta gorakada”, in Rodríguez Ranz, Jose Antonio (koord.), *Tolosa Abertzaletasunaren Bihotza*, Bilbo, Sabino Arana Fundazioa, 1995, 157.orr.

³⁴ *Ibidem*, 149.orr.

³⁵ Rodríguez Ranz, Jose Antonio, *Guipuzcoa y San Sebastian en las elecciones de la II. República*, Donostia, Kutxa Fundazioa, 1994, 49.orr.

finkaturiko aukera partidista 2 edo gehiago topatzen direlarik hala izendaturiko hirietan³⁶. Karlistak, nazionalistak, errepublikarrak, sozialistak, anarkistak... denetarik topatuko ditugu Tolosan. Izatez, karlismoak zentzu numerikoan gehiengoak badu ere, joku politikoen eta oreken bilaketaren harira hain zuzen nazionalistak izango dira errepublikaren lehen uneetan alkatetza eskuratuko dutenak. Udal bizitza benetan beroa izango da 6 urteko errepublikar osoan zehar.

Ez zen ordea hau 1934ko gertakarien bilaketara bultzatu zuen puntu bakarra izan. Aniztasun politikotik haraindi, Tolosak beste bi elementu zituen bere baitan Urriko iraultzan zer edo zer behinik behin gertatu behar izan zuela pentsatzera zeramatenak. Batetik, kontuan hartzekoa zen Tolosaren industrializazioa, probintziako lehenetarikoa hain zuzen eta Euskal Herri mailan kokaturik ere nahiko goiztiarra. Honek, nahita ez, lan antolaketa berriak eta gizarte kapa berriak sortu behar zituen eta ondorioz, langile mugimendu bat. Hala da. Tolosako langile mugimendua, batez ere sozialista, esangurazko indar handia hartu zuena izan zen, bereziki 1917ko greben harira bere gatazkakortasuna erakutsi zuena. Estatu mailan presentzia nabarmena izango zuten sozialistak (Enrique de Francisco) eta anarkistak (Galo Díez) topatuko ditugu bi mugimendu hauek antolatzen. Era berean bazen beste datu bat Tolosaren izaera kontserbadore orokortuari erantzuna ematen ziona, errepresioaren datuak hain zuzen. Egañaren Gerra Zibilaren entziklopediako datuen arabera “*Donostiaren ondotik, Gipuzkoako hiriburu foral ohia izan zen bere bizilagunen artean fusilatu gehien izan zuen herria*”³⁷. Halako datuak kontuan hartuta Tolosa hiri umil eta otzana izatetik urrun zegoela pentsatzekoa zen. 1934 aurreko eta ondoko gertakarien lerroa hain justu urte hartako Urriari apurturik egotea benetan kasualitate handia izango zitekeen.

2.1.-Tolosa, hiri industrialia

XIX. mendearen lehen urteetan emango da Tolosako lehen keinu industrializatzailea, hiri zaharraren harresiak bota eta zabalgunek berriak sortzearekin batera. Garaiko gorabehera belikoen, teknologi zaharkituek, atzerriko salgaien lehia gogorak edota merkatu amerikarraren galerak zaildu egingo du lehen saiakera hau ordea. Une honetan garatuko dira Tolosaren ikur izango diren bi industria garrantzitsuenak: paperarena, batetik, eta metalurgiarena, bestetik³⁸. Zalduak bataren garapenaren faktore bat bestearen krisia dela azaltzen du hain zuzen. Metalurgiaren industria tradizionala krisian aurkitzen zen eta horrek beste adar batzuen garapena sustatu zuen, hala nola, paperarena, horretarako errota berriak sortuz eta beste kasuren batean lehengo errota paper-errota bilakatuz (Igarondokoa)³⁹. Azken honetan 1817an eskuzko paper fabrika bat finkatuko da baina esan bezela Gerra Independentziak merkatal arazoak sortzeaz gain udala errota hauek saltzera behartuko du zorrak kitatzeko. Hala ere, eta bi industria hauek gerora begira industria tolosarraren gako bilakatuko badira ere, XIX. mendearen lehen urte hauetan zurratuen eta larruen ekoizpena izango da indar handiena hartuko duena⁴⁰.

³⁶ *Ibidem*, 282.orr.

³⁷ Egaña, Iñaki, 1936. *Gerra Zibila Euskal Herrian. IV. Tomoa: Gerra Zibila Gipuzkoan*, Andoain, Aralar Liburuak, 1998, 233.orr.

³⁸ Segurola Jiménez, Marco, *Evolución del espacio industrial de Tolosa*, Vasconia, 24. alea, 1996, 197.orr.

³⁹ Zaldua, Iban, “Paperaren historia eta eboluzioa (munduan eta Tolosan)” in Zumardi, *Paperaren papera. El papel del papel*, Tolosa, C.I.T., 2000, 21.orr.

⁴⁰ Segurola Jiménez, Marco, *Evolución del espacio industrial de Tolosa*, Vasconia, 24. alea, 1996, 197.orr.

1841-1842 urteak kokatzen dira Tolosako industrializazioaren behin betiko abiapuntu bezala. Lehenengo data 1. Gerra Karlistaren amaieraren ostean aduanak kostara mugitu ziren urtea dugu, papergintzari bereziki eragiten zion auzia. Europako paperek Euskal Herrian sartzeko erraztasuna zuten bitartean, 1780ko hamarkadatik aurrera hainbat euskal produktu barneko aduanetan atzerriko produktu bezala kontsideratzeko joera egon zen⁴¹. Papergileek euren kexak igorriko dizkiete autoritateei eta neurri protekzionistak exijitu eta testuinguru horretan aduanen mugimendu hau mesedegarria izango zaie. Bigarren data Tolosako “La Esperanza” jarraiko paper fabrikaren sorrerara garamatza, Espainiako lehenengo jarraiko paper enpresa bezala aipatua izan dena⁴² behin eta berriro, Zalduaren arabera gutxienez lehenagotik beste 3 bazeuden ere. Hala ere industrializazio gipuzkoarraren lehen mugarririk handitzat har daiteke autore batzuen arabera, halako eraikinrentzat ezagutzen ez ziren neurrietaraino iritsi zena⁴³. Paper industria moderno honek eskualdean hedapen itzela jasango du eta Tolosaren baitan 8 lantegi eta bere 12 kilometrotako ingurunean beste 11 izatera iritsiko da eskualdea⁴⁴. 1860. hamarkadarako finkaturik topatuko dugu paper industria moderno hau, hamarkada honen baitan 9 paper-ola moderno eratzen baitira eta iraganeko paper-errota gehienak desagertu egingo dira honen aurrean, nahiz eta oraindik ere eskuzko paper lantegiak eratu⁴⁵. “La Confianzaren” fundazioa (1856) izango da finkapen hamarkada honen abiapuntua eta Tolosa estatu mailako paper ekoizpen zentru handien bezala ezarriko duena. Paperak eratu duen mugimenduaren inguruan beste industriak ere loratuko dira. Aktibitate zerrenda luzea da: sektore metalurgikoaren bultzada berria, “La Esperanzaren” fundazio data beretik aurrera, zurrategiak, oihalgintza, txokolate lantegia, txapelgintza, poxpolo ekoizpena,... Gorosabel historialari tolosar garaikidearen esanaren arabera Tolosa “es indudablemente el pueblo de más industria de toda la provincia”⁴⁶.

60.hamarkadako trenaren eraikuntzak aldi berean geldialdi bat eragingo du kapitalak eraikuntza honen inbertsiora zuzentzean baina aurrera begira Tolosaren komunikazio bide onak hobetuko ditu. Garai honetan enpresen fusio prozesuak ematen dira eta lantegien handitzeak, industriaren osasun onaren adierazgarri, nahiz eta II. Karlistaldia prozesua urte batzuetan etetera etorriko den. Honen amaierarekin eta euskal industrializazioaren hasera data bezala ipini ohi den 1876 (kasu bizkaitarrarekin agian fidelagoa dena kasu honekin baino) bultzada berri bat jasoko du⁴⁷. Paper-orearen sarrerak garrantzia berezia hartuko du hedakundean, trapuaren ordezkapena areagotuz, eta bereziki inportatua izango da lehen une honetan⁴⁸. Metalurgiak, goraldean zeuden papergintzaren eta honetara bideraturiko oihal edo trapu industriaren alboan, berriro ere indarra hartuko du. 80. hamarkadan paper enpresa berriak sortuko dira eta esanguratsuenetarikoa “La Guipuzcoana”, 500 langilekoa, hiriko enpresarik handiena

⁴¹ Zaldua, Iban, “Paperaren historia eta eboluzioa (munduan eta Tolosan)” in Zumardi, *Paperaren papera. El papel del papel*, Tolosa, C.I.T., 2000, 24.orr.

⁴² Zavala, Federico de, eta Garmendia Larrañaga, Juan, *Monografía histórica de la villa de Tolosa*, Donostia, Eusko Ikaskuntza, 2007, 22.orr.

⁴³ Segurola Jiménez, Marco, *Evolución del espacio industrial de Tolosa*, Vasconia, 24. alea, 1996, 198.orr.

⁴⁴ Zavala, Federico de, eta Garmendia Larrañaga, Juan, *Monografía histórica de la villa de Tolosa*, Donostia, Eusko Ikaskuntza, 2007, 22.orr.

⁴⁵ Zaldua, Iban, “Paperaren historia eta eboluzioa (munduan eta Tolosan)” in Zumardi, *Paperaren papera. El papel del papel*, Tolosa, C.I.T., 2000, 25.orr.

⁴⁶ Segurola Jiménez, Marco, *Evolución del espacio industrial de Tolosa*, Vasconia, 24. alea, 1996, 199.orr.

⁴⁷ *Ibidem*, 200.orr.

⁴⁸ Zaldua, Iban, “Paperaren historia eta eboluzioa (munduan eta Tolosan)” in Zumardi, *Paperaren papera. El papel del papel*, Tolosa, C.I.T., 2000, 27.orr.

bilakatu zena, Oria ibaiaren gaineko zubiaren bitartez trenarekin komunikatuko dena Pasaiatik barna Norbegiako eta Alemaniako paper-oreaz hornitzeko. “La Confianzak” “Papelera de Araxes” izena hartuko du eta zabalkunde fase esanguratsuan sartuko da, uraren indarra aprobetxatzeko akueduktu eraikuntza handiak bideratuz. Zentrutik aldendutako Txarama auzoko gune hau halako punturaino garatuko da ezen XX. mendearen baitan bertan industria “kolonia” bat eratzen den, bere langileentzako etxebizitza, eskola eta kapera eta guzti⁴⁹. Bizkaiako enpresa eredu kontrajarririk Zalduak aipatzen digu nola autore batzuek “eredu tolosarraz” hitz egiten duten, garai honetan kokatu behar duguna. Eredu honek enpresa ertain-txikia, familia bati edo familimultzo txiki bati lotua adierazten du, nahiz eta bertako kartelizazio prozesu bat ere nabaritzen den⁵⁰.

Goraldiak ordea ez dira betierekoak izaten eta XIX. mendearen amaiera aldera ordea papergintzako krisia etorriko da, batez ere gainproduktio krisi bat, sektore honek Euskal Herrian, Katalunian eta Levante aldean izan zuen hazkunde delatua eta. Garai honetan eroriko dira Olloren “inperioa” (La Guipuzcoana) eta Sarasolaren fabrika (Laurak-Bat) fabrika. Gainbehera hau gaindituz enpresa batzuek handitzen jarraituko dute, ia beti familia-kapitalismo izaerari eutsiz⁵¹. Era berean “La Papelera Española” bezalako erraldoiek sartuko dute muturra Tolosan eta tolosako papergileek euren presioa bideratzeko elkarteak sortuko dituzte gero maila probintzialera hedatuko dena presio-talde tinko bilakatuz, babes eske. Mendearen amaierarako Tolosa Gipuzkoako zentru industrialik garrantzitsuenetakoa izango da eta bigarren sektore honetan 2500 pertsonak egingo dute lan⁵², datu esanguratsua garaiko datuen arabera Tolosak 8.111 biztanle zituela kontuan hartzen badugu⁵³, hau da, populazioaren heren bat gutxi gora behera sektore industrialean topatuko dugu. XX. mendearen baitan enpresa berriak sortuz joango dira. Paper sektoreko industria berriak, “Laborde y Labayen” konfetti eta litografia tailerrak, zurrategi berriak, iltze eta metalezko beste objektuen Mustaden fabrika, irin lantegi bat,... Industriaren gorakadaren adierazle izango da beharrezko lur eremuagatik borrokan gune erresidentzialei lehia irabaziko dietela esate baterako. Beste bi mugari aipatzearen, 1911an Tolosako Bankuaren sorrera eta 1913ko “Museo Industrial y Comercial” ditugu⁵⁴. Enpresen forma eta tamainu erlatiboa ez da gehiegi aldatuko espezializazio maila zertxobait hazten bada ere. Elektrifikazioa eta makinaren modernizazioa emango da⁵⁵, eta I. Mundu Gerraren testuinguruan Gipuzkoako Sustapen Kontseilu Probintzialak honako datuak emango ditu: 31 enpresa, paper eta arte grafikoen, metalurgiak eta oihalgintzak osatua, 1.909 langile (1.806 gizon eta 823 emakume) eta era honetan probintzia mailako hirugarren hiria zentru industrialen kopuruari begira Donostiaren eta Eibarren ondoren⁵⁶.

Ia mende bateko industrializazioarekin iritsiko da Tolosa II. Errepublikara. Azken finean aurretiko azalpen honen helburua hiri honen eraldaketa sakona erakustea

⁴⁹ Segurola Jiménez, Marco, *Evolución del espacio industrial de Tolosa*, Vasconia, 24. alea, 1996, 212.orr.

⁵⁰ Zaldua, Iban, “Paperaren historia eta eboluzioa (munduan eta Tolosan)” in Zumardi, *Paperaren papera. El papel del papel*, Tolosa, C.I.T., 2000, 28.orr.

⁵¹ *Ibidem*, 29.orr.

⁵² Segurola Jiménez, Marco, *Evolución del espacio industrial de Tolosa*, Vasconia, 24. alea, 1996, 201.orr.

⁵³ <http://www.euskomedia.org/aunamendi/140964/95438?q=tolosa+demografia&partialfields=fondo%3Aa u%25Flamendi&numreg=1&start=0>

⁵⁴ Segurola Jiménez, Marco, *Evolución del espacio industrial de Tolosa*, Vasconia, 24. alea, 1996, 202.

⁵⁵ Zaldua, Iban, “Paperaren historia eta eboluzioa (munduan eta Tolosan)” in Zumardi, *Paperaren papera. El papel del papel*, Tolosa, C.I.T., 2000, 29.orr.

⁵⁶ Segurola Jiménez, Marco, *Evolución del espacio industrial de Tolosa*, Vasconia, 24. alea, 1996, 202.orr.

izan da. Tolosa, iraganeko plaza militarra, zentru komertziala eta artisau gunea belaunaldi gutxi batzuen baitan behetik gora eraldatu zen. Ekoizpen modu berriak eta honekin lotuta “pertsona” mota berriak agertuko dira. Ez artisauak, ezta artisau tailerrak ere, nahiz eta tamaina aldetik Bizkaia-ko eredu-eta ez diren iritsiko. Era berean eskualde mailan ere eragingo du honek. Nekazal guneetatik Tolosaren fokora hurbilduko da jendea, edota industria bera inguruko herrietara hedatuko da (Villabona, Irura, Alegia, Amezketeta,...). Migrazio mugimenduak ere bideratuko dira Tolosaruntz gerra aurreko garai hauetan eta langile mugimenduaren ideiek ez dute zailtasunik izango, halako ardatz garrantzitsu batean egonik, Tolosara iristeko. 1917 urtea eta I. Mundu Gerrak sortutako baldintza onen amaiera garaia izango da langile mugimenduaren erradikalizazioa batez ere garatuko diren uneak eta zentzu horretan Tolosaren historiako gatazka sozial esanguratsuenak urte horietan gertatuko dira. Baina sakon dezagun langileria tolosar honen antolaketa modu zehatzago batean.

2.2.-Langile mugimendu tolosarraren hastapen zailak

1878an aipatzen omen da lehenengoz, Auñamendi entziklopediaren arabera, Tolosako lehen “langile erakundea”. Kakotxak hain zuzen ere, “Obreros del Progreso” izeneko talde hau logia frankmasoi bat zelako dira⁵⁷. XX. menderarte ez da Tolosan langile erakundeen finkapena emango. Logia honen kuriositateaz, gain, 1873ko abenduan topatzen da, Donostian ezarri eta bi urtera, Langileen Nazioarteko Erakundearen (1.Internazionala) lehen sekzio bat Tolosan, uste denez lerro anarkistari lotua⁵⁸. 1891an, 1890eko meatzarien grebako arrakasta dela eta sozialista bizkaitarrek Gipuzkoan zehar egingo duten kanpainak bertako agrupazio sozialistak eratuko dituzte, 1891ko maiatzean Donostian, eta uztailaren 31an Tolosan, bertan Facundo Perezagua Bilboko sozialismoaren buruak mitin bat eman ostean. Aurreko atalean aipatu dugun paper sektorearen krisi kontestuan emango da sorkuntza hau gainera. José Beascochea izango da Tolosako Agrupazio Sozialistaren presidentea baina bizitza laburra izango du talde honek, autore gehienek arabera Tolosan ideia kontserbadoreek zituzten sustrai sakonak direla eta. Taldea sortu eta hilabetera Beascochea bere lanetik kaleratua da patroien errepresio testuinguru batean eta Eibarrera joango da, 1897an bertako Agrupazioaren lehen presidente bilakatuz. 1902rarte itxaron beharko da Tolosako taldearen berfundazioarte⁵⁹.

Autore gehienek Gipuzkoan ideia sozialistek errotzeko dituzten zailtasunez hitz egiten digute. Orokorrean euskal langile mugimenduaren sorrera edota behinik behin indarrez agertzearen data bezala ezartzen den 1890 arte, Gipuzkoan lasaitasun laborala eta gatazken ausentzia ia osoa nabaritu dira. Sozialistak, 1. Internazionalaren gainbehera unetik anarkismoa alde batera geratuko baita momentuz eta ondorioz langileen antolaketa independente bat bultzatzen duten sektore bakarra izango baitira probintzian, langileak ofizioen elkarleen bidez antolatzen saiatuko dira. Industrializazio akonpasatua, modu trinkoan sustraitutako kultura eta ideologia kontserbadorea,... aipatzen ditu Castellsek honen arrazoi bezala. Langile gune batzuetako botuen

57

<http://www.euskomedia.org/aunamendi/140964/95517?q=tolosa&partialfields=fondo%3Aau%25F1amen di&numreg=1&start=0>

⁵⁸ Barruso Barés, Pedro, “El origen del socialismo en Guipúzcoa (1871-1923)” in Agrupación Socialista de Tolosa, *Cien años de socialismo en Tolosa, 1891-1991*, Tolosa, Agrupación Socialista de Tolosa, 1991, 23.orr.

⁵⁹ *Ibidem*, 25.orr.

azterketek langileek errepublikarrei eta tradizionalistei emandako babesa erakusten dute⁶⁰.

Noski, auzi kulturalak bakarrik ezin dezake hau azaldu, ideia kontserbadoreen presentziak sozialismoaren ezarpena oztopatuko balu hau finkatu zen beste guneetan ere nahikoa ezinezkoa izango baitzen halako mugimenduak finkatzea, arrazoibide berari jarraituz. Esku lanaren jatorriak pisu handia izango du noski, landa inguruneetatik etorriko baitira eta gertuko guneetatik, Bilboko inguruaren kasuan ez bezala. Hauek iraganeko gremioak, erlijiotasuna, balore tradizionalak,... ekarriko dituzte eurekin euren kontzientzietan⁶¹. Tolosako lanaren antolaketa ereduak ere izango du bere pisu nabaria ordea. Enpresa ertainak eta txikiak topatuko ditugu Tolosan, kasu batzuetan, euren dimentsioengatik iraganeko artisau tailerretatik ere bereizten ez direnak, kokagunea bera ere Alde Zaharrean finkatuz. “Eredu tolosar” hau, familia enpresa batean lanean aritzea, patrioiaren erlazio hurbilagoak, hauen paternalismorako joera eta erlazio modu berrien sorrera,... benetan kontuan hartzekoak direla esango nuke.

Hain zuzen ere Tolosaren kasuan hauteskundeak dira tradizionaltasun horren ideia bete-betean betetzen ez dutenak. Kazikismoaren garai bete-betean gaude eta ezin esan genezake askatasun handiegirik, egun ulertzen dugun zentzuan, zegoenik bozka ematerako orduan. Langileria berri honek bere burua iraganeko artisau bezala ikusiko duen moduan, patrioiak iraganeko jauntxo bezala ikusiko ditu. Klientelismo modu berri hauen eraiketarekin botua “jauntxo” bati fidelitatea adierazteko modu ere bilakatuko da. Beraz, nekeza da hauteskunde datu horietatik halako ondorioetara iristea. Tolosan ideia tradizionalisten pisua, edota langileek tradizionalistei botua emateko duten pisua aipatzen bada ere, XIX. mendeko hauteskundearen datuek erakusten digutenaren arabera 1899rarte Koalizio Liberala edota Alderdi Kontserbadorea izango dira botuen gehiengoak lortuko dutenak⁶² eta nagusigo karlista, bere gora beherekin, ez da XX. menderarte finkatuko⁶³, hain zuzen langile mugimenduak ere indarra hartzen duen garaietararte eta hauek jada euren alternatiba propio bat baduten arte. Patrioiek 1880ko hamarkadaren amaiera aldera Tolosan sortutako “La sociedad de socorros mutuos para los obreros de las fábricas de papel de los Sres. L. Duras. y Compañía, Sesé, Bandrés y Echevarría, Yarza y Compañía de la villa de Tolosa”⁶⁴ jada ez da aski izango langileriaren kontrolerako.

2.3.-Sozialismoa Tolosan

1901ean “sociedad de oficios varios” delako bat topatzen da Tolosan, nahiz eta bere kopurua eta ekinbide sindikala ez diren ezagutzen⁶⁵. Perezaguaren eta sozialista bizkaitarren hedapen nahiak ez ziren eten. Lehen esan bezala 1902an berpiztuko da Tolosako taldea eta 1905erako Gipuzkoan hiru talde sozialista izango ditugu:

⁶⁰ Castells, Luis, “Los trabajadores en el País Vasco (1880-1914)”, *Historia contemporánea*, 4. alea, 1990, 64.orr.

⁶¹ Ruzafa, Rafael, “Los trabajadores vascos a finales del siglo XIX”, *Cuadernos de Alzate: revista vasca de la cultura y las ideas*, 21.alea, 1999, 157.orr.

⁶²

<http://www.euskomedia.org/aunamendi/140964/95519?q=tolosa&partialfields=fondo%3Aau%25F1amendi&numreg=1&start=0>

⁶³

<http://www.euskomedia.org/aunamendi/140964/95528?q=tolosa&partialfields=fondo%3Aau%25F1amendi&numreg=1&start=0>

⁶⁴ Ruzafa, Rafael, “Los trabajadores vascos a finales del siglo XIX”, *Cuadernos de Alzate: revista vasca de la cultura y las ideas*, 21.alea, 1999, 165.orr.

⁶⁵ Barruso Barés, Pedro, *El movimiento obrero en Guipúzcoa durante la II República. Organizaciones obreras y dinámica sindical*, Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia, 1996, 134.orr.

Donostiakoa, Eibarkoa eta Tolosakoa. 1910ean beste mugarri bat finkatuko da sozialismo tolosarrean, pertsona batekin lotuta. Madrildik paper industrian lan egitera etorriko da Enrique de Francisco, Tolosako mugimendu honen figura klabea bilakatuko dena eta 1912ko greban paper gailena jokatuko duena, Gipuzkoa eta Estatu mailako sozialismoan ere lehen lerroko buruzagi bilakatuz⁶⁶. 14 urtetan garatuko du bere ekinbidea Tolosan, Eibarrera bizitzera joan aurretik. 1878an Getafen jaiotako sozialista hau *El Socialista*ren fondoekin paper fabrika bat montatzeko iritsi zela Tolosara dirudi, Pablo Iglesias bere lagunarekin elkartrukaturako gutunei begiratzeko badiogu. De Franciscok topatu zuena ia emigrazioerik jasan ez zuen hiri bat zen eta bere langileak, hein handi batean, bere industriako lana landako lanarekin uztartuz. Langile auzorik ez zen, Bizkaiko estiloan. Langileria berri honek bizitza modu tradizionalan irauten zuen oraindik ere, katolikotasunak eta karlismoak eremu oparoa izanez euren hedapenerako. Langileek euren patroiekin ospakizunak elkarbanatzen zituzten, “Boinas Elosegui” enpresaren kasuan bezala Izaskungo Ama Birjinaren egunean. Papertegien alboan “feudoak” osatzen ziren. Familia espiritua. Erregimen patriarkala. Paternalismo babeslea⁶⁷. Hau da, “eredu tolosarra”.

Testuinguru honetan ekingo dio De Franciscok talde sozialistaren beste berfundazio berri bati, 1913an. *Avante* egunkariaren argitarapena hasiko da. Era berean, politikaren garrantzia ikusirik, Zentru Errepublikarraren eraiketari ere ekingo dio buruzagi sozialistak, errepublikanismoarako hurbilketaren estrategia prietistari jarraituz. Modu honetan 1915ean eta 1920an zinegotzi kargua eskuratuko du, 8 urtetan burutuko duen lana. Agrupazio Sozialista burumakur topatzen da De Francisco iritsi berritan. Gatazka bat izango da erakunde honi oxigenoa emango diona. 1912an burutuko da Tolosaren historiako lehen langile gatazka esanguratsua, probintzia osoko greba orokor baten baitan. Tolosako karlistek “haizerauntsi iraultzaileak” iritsi zirela esango zuten⁶⁸. Grebaren arrazoia somarako edota “destajoko” lanaren ordainketaren ingurukoa zen. Abuztuaren lehen piztuko zen langilearen gaitzespena baimentzen zuen prozedura honen aurkako borroka “La Papelera Española” lantegiko “couché” paperaren sekzioan. Negoziaketetan De Franciscok soldata finko bat eta grebagatik kaleratuak izan zirenak berriro ere lanean hartzea eskatzen zuen besteak beste. Enpresak ordea ez zuen 5 kideren berronartzea burutu nahi, hauen “ideia sozietarioak” zirela eta. Honen aurrean De Franciscok, 1911n sortutako “Asociación de Obreros” bitartez irailaren 2rako grebara deituko du. Goiz goizetik langileek kaleak hartu zituzten. Goardia Zibilekin borrokak izan zituzten, hauetan emakumeek izan zuten papera azpimarratu izan delarik, grebalariei aurrean ipiniz indar armatuen kargen aurrean hormak osatuz. Probintziako gobernadore zibilak Tolosara bertaratu behar izan zuen eta jokaera populista erakutsiz, Bizkaian Lomak egin zuen bezala langileei euren eskaerak onartu zizkien. Arrakasta itzela izan zen. Langileen erakundearen kideak ehunetik bostehunera igaro ziren eta hain zuzen hilabete batzuetara fundatuko dira Agrupazio Sozialista eta *Avante*. 1917ko hauteskundeetan gertakari hauek hautagai errepublikarren gorakadan islatuko dira⁶⁹.

Baina hau hasera besterik ez zen. Tolosaren Historiaren inguruko lanetan, hau da, 1934a ahazturik, hurrengo gatazka handia hartu izan da Tolosako langile gatazkarik garrantzitsuen bezala, 1917 urtearen ingurukoak, eta ziurrenik 34ko iraultzarekin

⁶⁶ Blazquez Brímez, “Primer centenario 1891-1991 Agrupación Socialista de Tolosa”, in Agrupación Socialista de Tolosa, *Cien años de socialismo en Tolosa, 1891-1991*, Tolosa, Agrupación Socialista de Tolosa, 1991, 14.orr.

⁶⁷ Villanueva Tellería, José Mari, “Enrique de Francisco Jimenez, 1878-1957” in Agrupación Socialista de Tolosa, *Cien años de socialismo en Tolosa, 1891-1991*, Tolosa, Agrupación Socialista de Tolosa, 1991, 36.orr.

⁶⁸ *Ibidem*, 37.orr.

⁶⁹ *Ibidem*, 39.orr.

alderatuz gero ere baieztapen berbera egin beharko genuke, nahiz eta izaera aldetik bi greba oso desberdin izan: hau greba ekonomikoa da, 34koa greba politiko bat den bitartean. I. Mundu Gerraren testuingurua Espainiako ekonomiaren “Zilarrezko Aroa” bezala hartu da. Ekonomiak eta irabaziek gora egingo dute, baina baita prezioek eta soldata errearen murrizketak ere. Langileek soldata berarekin lehen baino erosahalmen murriztagoa izango duten bitartean, San Francisco-Laskorain zabalgunea mansio berriz beteko da. Goraldiaren bi aurpegiak adierazpen benetan materiala izango dute. Hau dela eta, Barrusok aipatzen duen langile mugimenduaren “Urrezko Aroa” emango da Tolosan 1912-1917 artean⁷⁰.

1916ko abenduan UGTk eta CNTk era bateratuan estatu mailako greba baterako deitu zuten bizitzaren garestitzearen aurrean protesta egiteko. Tolosa, era berean, urte bereko azarotik beste greba baten prestaketan aurkitzen da. De Francisco presidente duen “Asociación de Obreros” eta sindikatu katolikoak antolatutako mugimendua da, soldata hobeagoen, asteroko ordainketaren, igandeetako atsedeenaren eta sindikatuen errekonozimenduaren alde egina. 1916ko azaroaren 27tik 1917ko abenduaren 22ra bitartean iraun zuen lanuzteak. Greba orokorra izan zen hirian. Goardia Zibilarekin gatazkak izan ziren honako honetan ere. Hedapen hain luzea zela eta hiriko zezen plazan sukalde herrikoi bat ezarriko da sozialista eibartarren laguntzarekin, behin greba amaitu ostean emakumeek berau mantentzea bultzatuko dutelarik bere prezio baxuengatik, proposamena albo batera geratuaz. *“Después de casi dos meses de paro y agotados sus recursos tuvieron que volver al trabajo sin ver satisfechas sus aspiraciones pero con la certeza de haber obtenido un triunfo moral. Los patronos se apuntaron una victoria pírrica que apenas mereció el ágape con que celebraron el final del conflicto”*, esango du Labayenek⁷¹. Soldaten igoera umil bat lortuko dute langileek baina batez ere euren erresistentzia gaitasunaz kontziente egiteak indartuko du langile mugimendua honako honetan, afiliazio kopuruek gorakada berri bat erakutsiz. Krispazio egoera hau urte bereko abuztuan areagotuko da, Estatu osorako PSOEek izaera politikoko greba iraultzaile bat deitzen duenean. Hiru egun iraungo ditu grebak Tolosan eta estatu mailan bezala porrot egingo du, langile tolosarren aurkako errepresioa eta langile erakundeen debekua ekarriz, De Franciscok bere lana udalera bakarrik zentratu beharko duenarik.

2.4.-Mugimenduaren bereizketa: Anarkismoaren presentzia

Lehen ikusi dugun bezala anarkismoa izan zen Tolosan lehendabizikoz agertu zen langile ideologia. Lehen Internazionalaren gainbeherarekin ordea hau ere erori egin zen eta lehenengo talde sozialistek izandako geldialdiak baino handiagoa jasango dute hiri gipuzkoarrean. Euskal Herri osoan UGTk suposatzen dieten konpetentzia esanguratsua eta han hemenkoako ekintzetan hartuko dute parte baina finkapenerako zailtasunekin. Ofizio zaharretakoak, arotzak edota margolariak izango dira, langile industrialen orde, anarkismoa bizirik mantenduko dutenak. 1911an agertuko dira CNTren lehen zantzuak Hego Euskal Herrian baina Lehen Mundu Gerra aurretik ordea

⁷⁰ Barruso Barés, Pedro, “El origen del socialismo en Guipúzcoa (1871-1923)” in Agrupación Socialista de Tolosa, *Cien años de socialismo en Tolosa, 1891-1991*, Tolosa, Agrupación Socialista de Tolosa, 1991, 26.orr.

⁷¹ Villanueva Tellería, José Mari, “Enrique de Francisco Jimenez, 1878-1957” in Agrupación Socialista de Tolosa, *Cien años de socialismo en Tolosa, 1891-1991*, Tolosa, Agrupación Socialista de Tolosa, 1991, 40.orr

anarkistak beraiek izango dira euren zailtasunak eta eragin urria aitortuko dituztenak⁷². Marokoko gerraren aurkako mobilizazioekin agertuko da sindikatu hau batez ere Bizkaian. Tolosaren kasuan aipaturiko bi grebetan, 1916an eta 1917ko abuztuan, UGTrekiko elkarlanak erakunde anarkista mesedetuko du eta bere presentzia hedatuko da honekin. Mugimendu sozialistaren barne zatiketak, perezaguisten eta prietisten artean, Errusiako Iraultzak sortzen duen testuinguru berria dela eta, eremu bikaina bilakatuko dira ekinbide anarkistarako. 1918an “Federación Regional del Trabajo del Norte” antolatuko da, CNTari atxikia eta Donostiakoarekin, Eibarkoarekin, Bilbokoarekin, Barakaldoarekin eta Sestaokoarekin batera Tolosan ere sindikatu anarkista bat sortuko da 1919rako⁷³.

Enrique de Francisco Tolosako sozialismoarekin estuki lotuta topatzen dugun bezala, anarkismo tolosarraren homonimoa Galo Diez izango da. Berarekin izango dira baita ere beste hainbat anarkista tolosar ezagun, Juan Mencia, Marcelino Bartolomé edota Jacinto Viteri, Galo etorri aurretiko anarkismoa osatu dutenak. Antonio Riveraren iritziz, Diez “*el anarquista más significado en el País Vasco en toda su historia*”⁷⁴ izango da. Bilbon jaioa 1883 edo 1884an, 8 urtetarako jada umezurtza zen, bere seme Lirio Diezen kontaketa araberak. Komentu edota apaiz eskola batean formatu zen, hala uste du behinik behin bere semeak, aitaren kultura zela eta⁷⁵. 1915eko ekainean bera izango zen Gasteizko ogiaren mutinaren bultzatzaile nagusia, ogiaren prezioaren igoera etetea lortu zelarik. Eibarren armero gisa arituko zen lanean eta Singer josteko makinaren enpresan lanean ari dela Tolosara destinatua izango da, 1921ean paper sektoreko sindikatu bat fundatuz⁷⁶. Komunistekiko kolaborazioari kritika handiak egingo zizkion buruzagia izan zen eta baita CNTa Hirugarren Internazionaletik ateratzeko borroka gehienetarikoa planteatu zuena ere⁷⁷. Bere heriotza, 1938an, Valentziako hondartza batean, CNTaren idazkari nazionala zela, oraindik ere aspektu ilunez beterik aurkitzen da, itota hil izanaren bertsioaren alboan bere bizitzaren aurkako konspirazio baten ustea ere bai baitago⁷⁸.

Tolosan dela, Galo Díezek De Franciscoren eta errepublikazaleen arteko konpromezuak aprobetxatuko ditu anarkismoaren alternatiba alternatibarik erradikalena bezala aurkezteko⁷⁹, De Franciscok uko egin baitzion Perezaguaren bidea jarraitzeari eta ondorioz mugimendu sozialistaren barneko erreformaren eta iraultzaren eztabaidan lehenengoekin geratu baitzen. Elementu berri bat sartuko da beraz langile mugimendu tolosarrean. 1917ko abuztuko grebaren porrotaren ostean hedatzen den errepresioak eta 1920. hamarkadan, Mundu Gerran borrokan zeuden herrialdeen merkatuak bake garaian jada galduta, emango den krisi ekonomikoak baldintza berriak dakartza. Talde sozialistak, Gipuzkoako eredu jarraituz (Eibarren salbuespenarekin), jarrera

72

<http://www.euskomedia.org/aunamendi/21856/37554?q=anarquismo&partialfields=fondo%3AAu%25F1a mendi&numreg=2&start=0>

⁷³ CNT Gipuzkoa, *Los orígenes de la CNT en el País Vasco*, <http://gipuzkoa.cnt.es/spip.php?article292>

⁷⁴ Rivera, Antonio, *La ciudad levítica*, Gasteiz, Arabako Foru Aldundia, 1992, 203.orr.

⁷⁵ Errazkin Agirrezabala, Mikel, eta Saizar Arostegi, Joxemi, *1936ko gerrako oroitzapenak Tolosaldean eta Leitzaldean*, Tolosa, Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza, Galtzaundi Euskara Taldea, 2008, 168.orr.

76

<http://www.euskomedia.org/aunamendi/21856/37556?q=anarquismo&partialfields=fondo%3AAu%25F1a mendi&numreg=2&start=0>

⁷⁷ Fusi, Juan Pablo, *Política obrera en el País Vasco, 1880-1923*, Madrid, Ediciones Turner, 1975, 473.orr.

⁷⁸ Errazkin Agirrezabala, Mikel, eta Saizar Arostegi, Joxemi, *1936ko gerrako oroitzapenak Tolosaldean eta Leitzaldean*, Tolosa, Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza, Galtzaundi Euskara Taldea, 2008, 170.orr.

⁷⁹ Fusi, Juan Pablo, *Política obrera en el País Vasco, 1880-1923*, Madrid, Ediciones Turner, 1975, 446.orr.

kontziliatorioa eta moderatua hartuko du patronalarekiko eta “Sindicato Papelero de la Región Vasco-Navarra” sortuko da 1919an, orotara izango dituen 2.492 afiliatuetatik 700 tolosarrak izango direlarik. Hemendik 1920ko apirilean Papelera Españolarekin lan konbenio bat sinatuko du Paperaren sindikatu honek. Konbenio honekin sindikatua onartzen da, soldata errebisaketa egitea hitz ematen da bizitza %10 garestitzen denean eta ekoiztako produktu tona bakoitzagatik sindikatuari 10 pta emango zaizkio talde sozialistari, garai honetan Tolosako “Casa del Pueblo” eraikiko delarik⁸⁰.

Anarkismoak ordea gaizki ikusiko du hitzarmen hau. 1919an fundatutako Sindikatu Bakarrak, 1921rako 200 afiliatu eskuratuko dituenak, kritika gogorak egingo dizkio burgesiarekin kolaborazioan aritzea bezala salatuko duen hitzarmen honi. Biolentzia iritisko da langileria tolosarraren ekinbide modura. 1920ko otsailean Bentaberrin litografia enpresa bateko ingeniari bat hilko dute, bere lantegian jada 3 hilabete irauten ari zen greba zegoelako. 1921eko urtarrilaren 20an “Beotibar” paper lantegiari su emango diote anarkistek, euren sindikatuko kide batzuk kaleratu eta hauen aldeko protestei gainerako langileek babes emango ez dietelako. Honen ondorioz enpresako langile guztiak izango dira kaleratuak eta lau atxilotu egongo dira. Handik hiru egunetara, Juan Mencia Sindikatu Bakarreko presidentea, edota hala usteko da behintzat, Enrique de Francisco hiltzen saiatuko da eta gazte sozialista bat, Francisco Salsamendi, hilko da tiroz liskarrean. Honek sozialistek bultzatutako greba bat eragingo du eta Sindikatu Bakarraren lokalak itxiko dituzte autoritateek. Aldi berean sozialismoaren barne zatiketek ahuleziarako bidea ere emango diote taldeari Tolosan “terceristen” aurkako jarrera tinko agertuko badute ere, batez ere Gaztedi Sozialistetan⁸¹. Langile mugimendua, zatiturik, gainbeheran sartuko da. 1923an Primo de Riveraren estatu kolpeak gainbehera hori areagotuz. 1924an Enrique de Francisco Eibarrera joango da eta honela Tolosako langile mugimenduaren etapa oso bat itxiko da. Errepublikararte itxaron beharko da berpizkundea eman dadin.

2.5.-1934aren atarian

Diktaduraren garaiko otzantzearen ostean Errepublikaren aldarrikapenak indar berria emango dio langile mugimenduari Tolosan. 1927an, De Franciscoren figuraren ausentziaren aurrean, Cecilio Iglesias topatzen dugu talde sozialistaren presidente eta Manuel Soto idazkari, Pedro Velez Paperaren Federazioko idazkaria izango delarik. 1933-1934 urteetarako berriz Agustín Urbistondo topatzen da Gaztedien presidente eta Prudencio García PSOEn buru. Aurreragoko azalpenetako iturrietan (prentsa, udalaren dokumentuak,...) pertsonaia hauen izenik agertuko ez bada ere pentsatzekoa da Urriko Iraultzaren uneetan beraiek aurkitzea erakunde sozialisten buru. 1925-1928 tartean zehar afiliatu berri diren gazteek indar berria emango diote talde sozialistari eta besteak beste hemen topatzen ditugu Asensio anaiak (Julian, Victor eta Eugenio)⁸², handik urteetara gerra kontseiluetan epaituak direnean 34ko gertakarietako parte hartzaile gisa agertuko direnak. Pedro Doctorearena bitartez lehenbiziko zinegotzi sozialista eskuratuko da 1931an, De Francisco errepublikarrekin aurkezten baitzen. 226

⁸⁰ Barruso Barés, Pedro, “El origen del socialismo en Guipúzcoa (1871-1923)” in Agrupación Socialista de Tolosa, *Cien años de socialismo en Tolosa, 1891-1991*, Tolosa, Agrupación Socialista de Tolosa, 1991, 27.orr.

⁸¹ Blázquez Brímez, “Primer centenario 1891-1991 Agrupación Socialista de Tolosa”, in Agrupación Socialista de Tolosa, *Cien años de socialismo en Tolosa, 1891-1991*, Tolosa, Agrupación Socialista de Tolosa, 1991, 16.orr.

⁸² *Ibidem*, 15.orr.

boto jasoko dituzte guztira. CNTaren antolatzaile Galo Díezek jarraituko du eta Errepublika garaian jada euren lokala izango dute Agintari kalean⁸³.

1931ko apirilaren 15ean iritsiko da Errepublika Tolosara. Justizia Plazako “Centro Republicano” egoitza, beterik zegoen plaza batetara, Castro Casalek bere hitzak zuzenduko zituen, “Marsellesa”ren kantuek kaleak betetzen zituzten bitartean, beti ere Arturo San Vicente garaiko ELAko militantearen arabera⁸⁴. Errepublika garaiko egoeraren berri ematen digu San Vicentek laburki: “Alderdiak baziren: sozialistek Herriko Etxea bazuten, abertzaleek batzokia geroago egin zuten, Centro Republicano-a ere bazegoen, CNTk Agintari kalean zuen egoitza...”. Sindikatuen sorrera aurretiagokoa bada ere, bere testigantzan honakoa gehitzen du “Bost urte horietan, 1931-36, herri honen historian une sutuagorik eta ilusio handiagorik ez da izan, dena esnatu zen, kontzientzia eta. Sindikatoak sortu ziren, alderdiak,... dena”⁸⁵. Akats historikoak akats, halako komentarioek garaiko biztanleentzat Errepublikak zein irudi utzi zuen erakusten digute eta zentzu horretan ez da gutxi. Komunistak ez bazeuden ere *Euskadi Roja* saltzen zuen bat bazegoela aipatzen digu, baina hau gerraren atarian.

Langile mugimenduak bereziki bizitza bortitza izango du Gipuzkoan Errepublika garaian. Tolosan estatu mailako paperaren %60a ekoitziko da. Probintzia mailako bigarren industria mota garrantzitsuenen honek krisi ekonomikoaren kolpeak gogor jasan beharko ditu. Langabeziaren tasak esanguratsuki handituko dira 1934rako, krisiagatik eta atzerrira lanera joan zirenak bertako krisiengatik euren sorlekuetara itzuliko direlako. Paper enpresa itxierak emango dira. Gaitasunaren %63an arituko da lanean paper sektorea 1934an. Paper-orearen ekoizpena bertaratu izanak lur jabeekin ere gatazkak eratuko dizkio industriari hauek “pinus insignis”aren sarrera oztopatu nahi dutenean. Soldatak izoztu egingo dira. Kontsumoa murriztuko da, soberakin industrialak ugaritu egingo da eta lan egunaren murrizketa bat emango da lan indarraren behar gutxiago dagoelako, kaleraketez gainera. Gazteak izango dira bereziki langabezia jasan beharko dutenak. Probintziako langabezia tasa %5,1 inguruan mugituko da potentzialki aktiboa den populazioa kontuan hartuz gero; zentsaturik aurkitzen den populazio aktiboaren arabera langabezia %15era iritsiko da. Paper sektorearekin alderatuta metalurgia izango da batez ere kaltetuena eta lerro gorakor bati jarraituz 1935ean probintziako langabezia %17,44ean topatuko da, Errepublikaren amaieran %19,64ekoa izango delarik⁸⁶.

Errepublikak suposatuko duen polarizazio politiko, sozial eta ekonomiko honetan grebak areagotuz joango dira. Hauen kopurua 8tik 2ra murriztuko da 1932tik 1933ra bitartean, baina ez da hala gertatuko bertan parte hartzen duten grebalariei kopuruarekin. 1934 urtean gatazkakortasuna bere punturik gorenera iritsiko da eta hori Urriko greba kontuan hartu gabe. 25 greba izango dira Gipuzkoan eta hauen %44a izango da lan erreibindikazioetara bideratua. Langile erakundeek elkarketarako joera nabariagoa erakutsiko dute, Errenteriakoa kasu, non apirilean UGTK, CNTk eta komunistek greba bat zuzenduko duten. Biolentziatzko gertakariak emango diren beste gune bat Irun izango da uztailen. Barrusok egiten duen Frederic Abaigarren aipua hona ekarriz, “*Hasta el verano de 1934 las huelgas son en talleres o empresas concretas. A partir del verano del 34 la lucha se extiende a la mayoría de la clase obrera irunesa. Se implanta la asamblea como medio decisorio y aparece el Frente Unido Proletario*”.

⁸³ Errazkin Agirrezabala, Mikel, eta Saizar Arostegi, Joxemi, *1936ko gerrako oroitzapenak Tolosaldean eta Leitzaldean*, Tolosa, Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza, Galtzaundi Euskara Taldea, 2008, 168.orr.

⁸⁴ *Ibidem*, 224.orr.

⁸⁵ *Ibidem*, 225.orr.

⁸⁶ Datuen iturria: Barruso Barés, Pedro, *El movimiento obrero en Guipúzcoa durante la II República. Organizaciones obreras y dinámica sindical*, Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia, 1996.

UGTk eta ELAk, Gipuzkoako gehiengoa osatzen duten bi sindikatuek, greba borrokarako metodo tinkotasunez hartu izana bilakatuko da mobilizazio gorakada honen arrazoi garrantzitsuenetarikoa⁸⁷. Tolosaren kasuari begira langile erakundeen gorakadak islada nabaria erakutsiko du. Badirudi gainera probintziaz kanpoko emigrazioaren presentzia handitzen dela. Errepublikara garaian kolore ia guztiak topa ditzakegu mugimendu tolosarrean. Zerrenda honakoa litzateke: UGT (De Franciscok sortutako “Sindicato Papelero de la Región Vasco-Navarra” bertan sartuko da), ELA (Asociación de Trabajadores Vascos Gráficos de Tolosa federazioa), CNT (Sindicato Único de Trabajadores) eta sindikalismo katolikoa (Sindicato Católico, Sindicato Católico de Obreros Boineros, Sindicato Católico de Papeleros Productores, Sindicato Católico de obreros y empleados del vestido y tocado)⁸⁸.

Egoera honekin iritsiko gara Tolosako 1934ra. Urte beroa izango da, lehen genion bezala. Autoritateak behintzat kontziente dira. 1934ko urtarrilaren 11ean igorritako gutunean, gobernadore zibilak hiritar guztien desarmaketa eskatuko dio Tolosako alkateari, “...cualquiera que sea su filiación o ideología político social y que no se hallen previstos de las licencias o autorizaciones correspondientes, intensificando cacheos, y efectuando registros domiciliarios y de Centros o Agrupaciones en las que se sospeche se guarden armas, municiones, o explosivos...”⁸⁹. Era berean, apirilaren 26an berriro ere gobernadore zibilaren eskutik jasoko duen Bandoak, “Estado de Alarma en todo el territorio nacional” ezarri dela berri emanez, garaiko egoera ezegonkorra islatzen digu. Urtarrilaren 6an “Prebentzio egoera” ezarriko da estatu mailan, martxoaren 7an eta apirilaren 25ean “Alarma egoera”, ekainaren 24an berriro ere prebentziokoa eta irailaren 23an, Urriko Iraultzaren atarian, berriz ere alarmakoa⁹⁰. Haserako kapituluetan aipatzen genuen udalen krisiak ere eragin zuzena izango du Tolosan. Azurza alkate tradizionalistaren eta zinegotzi nazionalista, errepublikazale eta sozialisten artean liskarrak piztuko dira Ardoaren Estatutua dela eta. Abuztuaren 9ko udal plenoan Labayen nazionalistak euskal udalen asanbladarako ordezkarien hautespena egiteko ea hilaren 12an udal plenoa deitzeko asmorik zuen galdetu zion Azurzari eta honek ekintza ilegaltzat salatu zuen hura, borroka hura irainduz. “Gora Euzkadi”ka eta “Gora euskal iraultza” bezalako oihuekin amaitu zen sesioa. Oposizioko zinegotziek udala utziko dute udalen mugimenduaren aginduei jarraiki. Irailaren 13an alkatea erasotua izango da udaletxean tomate batekin aurpegian ematen diotenean. Irailaren 20ko plenoan, Azurzaren kideak bakarrik egongo direlarik, nazionalisten aurkako salaketak burutuko dira. Jesus Insausti *El Díako* kazetaria prozesatua izango da Azurzaren aurkako ustezko irain delituagatik eta 1935eko uztailen espetxeratuko dute honengatik⁹¹. Tolosako giroa bero-bero egongo da Urriko egunak iristen direnerako.

⁸⁷ Barruso Barés, Pedro, *El movimiento obrero en Guipúzcoa durante la II República. Organizaciones obreras y dinámica sindical*, Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia, 1996, 94.orr.

⁸⁸ Datuen iturria: Barruso Barés, Pedro, *El movimiento obrero en Guipúzcoa durante la II República. Organizaciones obreras y dinámica sindical*, Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia, 1996.

⁸⁹ Tolosako Udal Artxiboa, Asuntos Políticos, E.5.6., S.F. 1933-1936. (Artxiboaren sekzio honek antolaketa ez duenez eta dokumentuen erreferentzia falta dela eta ezin da gehiago zehaztu).

⁹⁰ Carreras, Albert, eta Tafunell, Xavier (koord), *Estadísticas históricas de España: siglos XIX-XX*, Bilbo, BBVA Fundazio, 2005 (2. argit.), 1087.orr.

⁹¹ Rodríguez Ranz, Jose Antonio, García Ocampo, Maria Begoña, “II. Errepublika: Euskal abertzaletasunaren ilusia, dinamismoa eta gorakada”, in Rodríguez Ranz, Jose Antonio (koord.), *Tolosa Abertzaletasunaren Bihotza*, Bilbo, Sabino Arana Fundazioa, 1995, 155.orr.

3. “Tolosa asaldatu zuten zortzi egunak”

3.1.-Tolosako 1934ko Urriko greba iraultzailerako iturriak

“Partiendo la Presidencia de que se había sofocado el movimiento revolucionario que calificó de absurdo disparatado y horroroso promovido sin duda por quienes tienen poco que perder y menos de patriotas y Españoles consideró debía dar cuenta de su actuación durante el mismo al Ayuntamiento para que conocida por los Señores Concejales expusieran libremente su parecer, criticando su modo de proceder o mostrando su conformidad a la forma como se había conducido en las delicadas y difíciles circunstancias que atravesó.”

Fidel Azurza Tolosako alkatearen hitzak 1934ko urriaren 24ko Udal plenoan.⁹²

Eta esan bezala hala egin zuen. Ez zuen laburpen zehatzegirik eman hala ere, ez zuen ezer asko esateko, diskurtso hura tramite hutsa zen. Hamabi egun inguru ziren greba amaitu zela eta jakin beharreko guztia bazekiten zinegotziek, azaldu ziren bakarrak, azken aldiko pleno guztietan gertatu ohi zen bezala, Azurzaren kidekoak baitziren auzi honetan, EAJren zinegotziak, errepublikazaleak eta sozialistak, udalen krisiaren ostetik ez baitziren plenoetara agertzen⁹³. Inork bere “*modo de proceder*”en eta “*la forma como se había conducido en las delicadas y difíciles circunstancias que atravesó*”ren aurkako kritikarik ez zuenez, sesioa indar armatuen eta Udalaren goraipamenetara mugatu zen. Harrigarria badirudi ere, bere hitzaldian ez zen langile erakunde bakar baten aipamenik egin, ezta greba garaian zehar jazotako gertakaririk edota gehiegikeriarik aipatu ere. Diskurtsu paternalista bat erabiliz, bere grebaren azalpena teoria konspiratibo batean oinarritu zen, grebaren buruzagi abstraktu batzuek herri xehea engainatu zutela azalduz eta Azurza bera herriaren interesen, moralaren eta integritatearen defendatzaile bezala agertuz. Hala ere, orokorrean, Udalaren sesio hauetan grebari ez zitzaion denbora gehiegi eskeini, ez baitzen jada euren eskumenekoa. Militarrek zuten agintea eta haiei zegozkien auzi honen inguruko erabaki eta betebeharrak guztiak.

Prentsak ere antzeko panorama eskaintzen digu. Greba egoeran aurkitzen zen Gipuzkoa, Gobernadore militarrek zuen kontrola eta urriaren 12tik aurrera baimendu zen prentsa argitaratzea, zentsura militarpean, ordutik aurrerako egunkari guztietako zigiluek gogorarazten diguten bezala⁹⁴. Egunkariak argitaratu ez izana seguruenik ere

⁹² Tolosako Udal Artxiboa, A-1 228 (*Aktak*, 1934 ABR-1935 ENE), Fol. 134r, 1934-10-24ko udal plenoa.

⁹³ “Irailaren 4an Kontzertu Ekonomikoaren eta udal autonomiaren defentsarako eratutako lurraldeetako Udalarteko Batzorde Betearazleek –abuztuaren 12an hautatuak- Euskal Herriko udal guztietako udalbatzakide abertzale, ezkerreko errepublikazale eta sozialista guztien dimisioa erabaki zuten.

“Handik hiru egunera, agindu honi atxikita, udalbatzakide abertzaleek –Ziaurriz, Labayen, Iñurrategi eta Muñoa Jn.ak-, errepublikazaleek –Aguerri eta Labadia Jn.ak- eta sozialistak –Doctoriarena Jn.-bere dimisioa aurkeztu zuten. Hortaz, Tolosako Udala, bada, Azurza Jn. Zuela buru, 7 udalbatzakide tradizionalisten, karlista disidentearen Urreta Jn.aren eta errepublikazale erradikala zen Goiburu Jn.aren eskuetan geratu zen.” Rodriguez Ranz, Jose Antonio (koord.), *Tolosa: Euskal Abertzaletasunaren bihotza*, Bilbo, Sabino Arana Fundazioa, 1994, 154. orr.

⁹⁴ EL Día, 1934-10-12: “Para su debido conocimiento y efectos correspondientes, participo a V. que desde el día de hoy queda establecida la censura para la prensa, debiendo presentar las galeras en esta Comandancia Militar. San Sebastián, 11 de octubre de 1934. El Comandante Militar León Carrasco”.

hasera batean grebari zegokion, Donostiako inprenta-langileek lana uztean. 12tik aurrera hiriburuko egunkariak euren argitarapenari ekin zioten berriro ere baina lehen aipaturiko moduan. Ezkerreko edota langileen egunkariren batek argitaratua izan nahi bazuen, beraz, nekez lortuko zuen hau, eta hemeroteketako katalogoek hala adierazten digute. Laburbilduz, beraz, izango dugun prentsa zentsura militarra igaro duena izango da, hots, kontserbadorea edo ez-iraultzailea, behinik behin, eta hain justu Tolosako grebak iraun zuen bitarteko egunetan ez zen Gipuzkoako probintzian egunkaririk (legalik) argitaratu, Estatu mailako prentsaren aipamen urriak bakarrik ditugularik. Urriaren 12tik aurrerako argitalpenetan ohikoak izan ziren greba egunen laburpen edota kronika batzuk baina gerora historiografiak hartu dituen aztergaien kasuan bezala, gertakaririk aipatuena Eibar eta Arrasatekoak izan ziren, eta Donostiakoak bigarren maila batean. Tolosako gertakariak ez zuten lerro bat baino gehiago bete egun bakoitzean egunkari gehienetan. Izatez, Tolosaren prentsako presentzia murrizak ia gertakaririk ere eman ez zela pentsatzera eraman dezake irakurlea eta kasu bat baino gehiagotan ikusi denez giro lasai eta baketua aipatzen dute, beste iturrien arabera erabat kontrakoa agertzen den bitartean. Muga Gipuzkoako gobernadore zibilak berak urriaren 8an giroa hobetu zela esanez bete zuen ahoa⁹⁵, hurrengo egunek kontrakoa erakutsi zutelarik.

“El Día” nazionalista da salbuespena, berak eman baitzuen gertakarien azalpenik zabalena bai orokorrean eta baita Tolosaren kasuan ere. Bertako korrespontsalak Tolosaren inguruan idatzirik kronika, egun bakoitza banan-banan azalduz, ia literarioraino iritsiz, aztergai dugun auziaren inguruko harribitxi bat da, narrazio zabal, ez-zatikatu eta koherente bat ematen baitigu hilaren 5etik 12ra, egun horietako Tolosa aztertu nahi duen ororentzat oinarritzko dokumentua delarik. Batez ere Gipuzkoako prentsa (El Día, La Constancia, El Pueblo Vasco, La Voz de Guipuzcoa) eta egun horietan zehar Udalak eta honekin era batera edo bestera erlazionaturiko instituzioek (Goardia Munizipala, Gobernazio Zibila, Gobernazio militarra, jende pribatua...) ekoiztutako dokumentuak hartu dira gertakari historiko hauen narrazioa eraikitzeo oinarri gisa. Grebalarien iturriak dira (langile erakundeetako edota iraultzaileen artxibo pribatuetan amaitu duten planifikazio dokumentuak edota panfletoak, errepresalia judizialik ez izateko suntsituak izan zirela pentsa daitekeenak, edota ahozko iturriak, baldin badaude) ikerketa honen hutsune nagusia. Artxibo militarrek ere informazio bikaina eskeini diezagukete, epaiketek esate baterako. Ikerketa honen sakonketan jarraitzeko bi adar nagusiak dira baina lan zehatz honetarako alde batera utzi behar izan direnak.

3.2.-Greba iraultzailearen gora-beherak (Urriaren 5etik 12ra)

Estatu osoko deialdiari jarraituz, Tolosan ere urriaren 5ean ekin zitzaion grebari, arestian aipatu diren arrazoiengatik. Prentsak ez du zehazki aipatzen zein filiaziotakoak ziren Tolosako grebalariek eta grebaren antolatzaileak baina bereziki UGTren deialdi bat izanik, berau, Alderdi Sozialista eta Gaztedi Sozialistak planifikazio horretan aritu zirela pentsa dezakegu. Ezin jakin zein izan zen ELAk edota CNTk plangintzan izan zuten papera, erabilitako iturriek suposatzen duten mugatetik, baina zalantzarik gabe esan dezakegu, aurrerago azalduko denagatik, bi sindikatu hauetako langileek greban

⁹⁵ ABC, 1934-10-9. Gipuzkoako bertako egunkariak, euren laburpenetan, prentsa estatalak hitz hauek jaurti ziren egunean ez bezala, ez zituzten aipatu ere egin Gobernadore zibilaren diskurtsu lasaigarri hauek, izan ere, biolentzia mailak egun horietan nolabait behera egin bazuen ere berriro ere tentsioen goraldi bat emango baitzen bigarren aste horretan. Optimismoak edota errealitatea ezkutatu nahiak hanka sartze horretara eraman zuren Muga jauna.

parte hartu zutela, prentsaren eta goardia munizipalen aipamenetan ikus daitekeen bezala. ELA Gipuzkoa mailan eta bide batez Tolosan hartzen ari zen indarra ikusita eta CNTk Tolosan zuen presentzia ere ikusirik, tartean egon zirela pentsatu behar da, greba orokorra izan baitzen hiribilduan, eta elkarren arteko gatazkarik ez baitzen eman⁹⁶, guztiz kontrakoa, aurrerago aipatuko ditugun gertakariengatik. Izatez, sindikatuen artean hausturarik eman bazen hori sindikatu katolikoek aldetik eman zen baina hauen indarra ez zen hain esanguratsua eta gainbeheran aurkitzen zen. Gatazka honen islada azaroko gertakari batean agertzen zaigu, baina hori ere gerorako utziko dugu. Greba egoerako 8 egunen azalpena burutuko dugu oraingo honetan, urriaren 5etik, ostiraletik, hurrengo asteko hilaren 12ra, ostiralera (berau barne) luzatu zen grebaren azalpena.

-Urriaren 5a, ostirala

“El viernes en sus primeras horas se declaró el paro general que había de alcanzar tan insospechadas proporciones” zioen “El Día”ren Tolosako korrespontsalak hiriaren egoera orokorra deskribatuz. Fabrika eta lantegietara ez zen langilerik agertu, “batzuek konbikzioz, beste batzuek grebalariei zien beldurragatik”, azaltzen digu, eta Estatu indarren presentzia urria zela eta (10 Goardia Zibil hiri osorako) erraztasunez ezarri ziren grebalariek Tolosaren jaun eta jabe. Goizeko bederatzi eta erdietatik aurrera grebalarien piketeek dendak itxiarazi zituzten, indar armatuekin inongo arazorik izan gabe, lehen aipatu denagatik. Bai lantegiak bai merkataritza itxita, grebaren zabalpena orokorra izan zen Tolosa osoan⁹⁷. Korrespontsala berak idazten duenaren arabera, “alcanzando con esto el paro una extensión que desde hace mucho tiempo no se conoció en este genero de movimientos”⁹⁸.

Lana gelditu eta hurrengo pausua hiriaren kontrola hartzea izan zen horretarako Tolosaren sarbideetan langile taldeak ezarriz, garraioaren kontrolerako, edota hobeto esanda, hau eteteko. Tolosak 1934ko grebalarientzat, eta gerora, 1936ko bando errepublikarreko borrokalariarentzat arazoren bat erakutsi badu, hori bere komunikabideak izan dira, esan bailiteke Tolosa, Eibar edota Arrasate bezalako zentruen konparaturik, *ondoegi* komunikaturik dagoela. Trenaren presentzia soilak Donostiarekin, Gasteizekin eta Iruñearekin lotzen zuen, militarren presentzia azkarra baimenduz, eta N-1 errepidea ahaztu ezin den ardatz garrantzitsua da. Tolosan gertakariak Eibarren edota Arrasaten bezain urrun zergatik joan ez zirenen kausak, beraz, ez du zertan hiri haietako langile erakundeen indarrean egon, Tolosako langile mugimendua ez baitzen hain kaxkarra, izatez indartsua eta errepresio esanguratsua jasan zuena izan zelarik bai 1934an eta bai 1936an. Horrengatik, pentsa genezake Tolosako grebaren makaltzea batez ere errepresioaren azkartasunagatik eman zela, eta hau Tolosaren kokapen geografikoagatik (ekonomia alorrean zuen garrantziaz gainera). Neurri burutsua izan zen, ondorioz, grebalariek hartu zutena hiriaren sarbideak istean

⁹⁶ Baieztapen honen funtsa zera da, langileen erakunde ezberdinek beraien artean istiluak izan bazituzten, prentsak interes berezia izango zuela albiste hori zabaltzeko, grebalarien batasuna apurtuz, baina ez da halakorik gertatzen. Heriotzen kasuan gertatzen denaren logika bera da: Marcelino Orejaren eta Eloseguiaren hilketek orri guztiak bete zituzten, langileen basakeria azpimarratzeko; Tolosan hildako bakarria sindikalisten bandokoa izan zenez, ez zitzaion prentsa gehiegi eman “basakeria” horri.

⁹⁷ Udalaren plenoetako aktetan, behin eta berriz agertzen dira Brigada Munizipaleko langileen eskariak (1934-10-11, 1934-11-7), euren borondatearen aurka lana utzi behar zutela argudiatuz, bi astetan 6 egunez lan egin beharrean egun batean bakarrik lan eginez, iraultzaileek horretara behartu zituztelako. Udal langileetarako ere iritsi zen greba beraz, goardia munizipaleko kide bat grebaren sustatzaile izanaren susmoa izan zutelarik. Eskariak ez ziren onartuak izan. *Tolosako Udal Artxiboa, A-1 228 (Aktak, 1934 ABR-1935 ENE), Fol. 131v. eta 141r.*

⁹⁸ El Día, 1934-10-12.

eta “lineako autoen eta turismo-automobilen” garraioa debekatzeari⁹⁹, baina ez zen aski izan.

Prentsak ez digu mugimenduaren planifikazioaz hitz egingo, Tolosaren kasuan behintzat. Baina gainerako hirietan eman zen metodologia ikusita (eta grebaren sustatzailea leku guztietan langilegoaren adar sozialista izanik) pentsa liteke antzeko antolaketa-mekanismoak erabili zirela Tolosan ere. “El Día” egunkariak urriaren 13an Hernanin grebalarien Komite Iraultzaileak erabili zituen instrukzioak argitaratu zituen. Bertan langileak hasera batean non bilduko ziren zehazten zen, gero talde ezberdinak antolatzen zituen ekintza ezberdinetarako: 1. taldea dinamiteroena, trenbideak eta zubiak ezandarazteko, 2., 3., 4. eta 5. taldeak “autoritateak estilizatzeko” (aurrerago inutilizatzeko dio), 3 talde, “anbulante” deiturikoak, armak eta autoak errekluzatzeko; lan hauek egin ostean kanpaien kontrola, udaletxearena, hartu behar zuten eta era berean atxilotuen eta kotxeen errekluzamenduen arduradunak finkatu ziren¹⁰⁰. Tolosako grebalariek lehen egun honetan eta hurrengoan eraman zuten ekintzen ordena ikusita pentsatu behar da zuzendaritza baten ordenamenduari eta halako planen bati jarraiki burutu zituztela egindako ekintzak.

“Autokamioi” baten erreketa izan zen eguneko gertakaria eta kazetariak kronika orokorraren titularretako bat bezala erabili zuena. Dirudienez, grebalariek autokamioiari altoa eman zioten baina honek aurrera jarraitu zuen, grebalariek (kazetariak batzuetan “mozalbate” deitzen die, beste batzuetan grebalari, ziurrenik gertakaria umekeria bezala saltzeko) harrika hasiz eta kamioiak horma baten aurka talka eginez. Ordubata eta erdiak aldera gertatu zen hau eta Goardia munizipalaren artxiboetan islaturik geratu zen, 1934ko urriaren 14an atxiloturik Autoritateen disposiziora ipini zituztenean: Joaquin Bereciartua Liseris, 16 urtekoa, Marcelino Michelena Galvenzu, 19 urte, moldeatzailea, Antonio Gonzalez Castaños, 16 urte, Zamoran jaiola, Antonio eta Santiago Riell Garcia, 16 eta 14 urtekoak, Candido Fernandez Losada, 28 urtekoa, Zamorakoa hau ere, ikazkina, eta Manuel Figueras Estibariz, 17 urtekoa, ofiziorik gabea, izan ziren atxilotutakoak¹⁰¹. “Mozalbate” aipamena agian ez dago errealitatetik hain urruti, baina bihurrikeria batetik urrun, langileen esku hartzea ere ikus daiteke. Kazetariaren arabera ehundaka eta ehundaka pertsona izan ziren gertakariaren lekuko, “sin que nadie hiciese la menor muestra de desagrado”¹⁰².

Kontakizunari jarraiki, interesgarria da Tolosako korrespontsalaren hitzek ez dutela grebalarien munstrozko irudikapenik egiten. Grebalariek terrorezko ekintzak burutuko zituztenaren zurrumurrua zabaldu omen zen herri osoan, baina “Tranquilidad” da kazetariak egoera deskribatzeko erabiltzen duen hitza, gertatu zen “ankerkeriarik” handiena gazte talde bat San Frantzisko Pasealekuko lanpara elektrikoak suntsitzen ibiltzea izan zelarik. Ez da sindikalisten antolaketan gehiegi sartzen, bat ere sartzen ez dela ez esateagatik, baina kontakizunak orokorrean ematen digun irudia zera da, grebalariek modu ordenatu eta disziplinatuz batean ibili zirela, eta ez prentsa kontserbadoreak Iraultzari buruz ematen zuen irudi kaotikoaren arabera.

⁹⁹ *Ibidem*.

¹⁰⁰ El Día, 1934-10-13.

¹⁰¹ Tolosako Udal Artxiboa, *Policia Municipal, A.8.1., Rº 123*. Polizia munizipalaren artxiboetan orokorrean ez da ezer asko topatzen. Honen arrazoia Tolosan finkatu zen agente militarrean aurkitu beharko genuke, eginkizun polizialak eta zibilak euren kontrolpean geratu baitziren. Atxilotuen izenak agertzen diren txostena bera Tolosako Komandante Militarrari zuzendurik zegoen.

¹⁰² El Día, 1934-10-12

Egun honetan tolosarrak esnatu zirenean argi geratu zitzairen grebalariak ez zirela besoak gurutzaturik egon gauean zehar. Gau “lasai” hura hiriaren sarreretan barrikadak eta oztupoak eraikitzeke erabili zuten. San Frantzisko auzoko norvegiarren zubitik gertu (Tolosako hegoaldeko sarbidean) eraikitako barrikadaren berri ematen digu kazetariak: galipotez, harriz, postez eta zuhaitzez eraiki zituzten, sarbidea ezinezko bilakatuz. Gainera, goiz-goizetik langileek berriro ere euren ekinbide grebalariari heldu zioten. Larunbatero oraindik ere egiten den baserriarren azoka ez zen ospatu, eta berriro ere, zurrumurruean aurka, grebalariak ogiaren ekoizpena eta salmenta baimendu zuten. Autoreak harrotasunez dio azpimarratzekoa dela “que la mayoría de los obreros de este gremio, pertenecen a Solidaridad”¹⁰³. Baina eskiroletik oso gutxi zutela pentsatu behar da, ELAk gertakari hauetan zehar akusaziorik jaso bazuen, bai EAJren aldetik, bai euren etsaien aldetik, iraultzaileei lagundu izana izan baitzen. Kazetariak Solidaridadekoen aurpegia zuritu nahi du, baina Azaroaren 10eko ABCren ohar batek kontrako zerbait zioen: “Cuando fue clausurada la Casa del Pueblo de Tolosa, los socialistas se reunieron en el local de los nacionalistas. En Tolosa fueron los solidarios vascos los primeros en ir a la huelga, obligando a cerrar fábricas y la sucursal del Banco Guipuzcoano”¹⁰⁴. Greba amaitu zen egun berean, urriaren 12an, Tolosako Aberri Etxea itxi izanak¹⁰⁵ bide beretik pentsatzera garamatza: sindikatu nazionalisten eta ez-nazionalisten arteko elkartasuna errealtate bat izan zela baieztatu genezake Tolosako kasuan.

Telefono Zentrala hartu zuten langileek, bertakoak lana uztera behartuz, baina ez zuten inongo kalte materialik eragin¹⁰⁶. Gero Iparraldeko Estaziora joan ziren, Konpainiako langileei ere lana uztera behartuz¹⁰⁷. Ikus daitekeenez grebalarien estrategia, lana eteteaz gain, hiriaren komunikabide guztiak kontrolatzea zen, eta ez zihoazen bide txarretik, komunikazio horien kontrola gakoa bilakatu baitzitekeen grebaren iraupenarentzat eta izatez horrela izan zen. Beranduegi iritsi ziren Telefono Zentralera, egun bateko atzerapenez zehatzagoak izateko, lehen egunetik berataz jabetu izan baziren, emaitza bestelakoa izan baitzitekeen. Izan ere, tren geltokitik kale gutxitara, telefonoa belarrian zuela, grebarik egin gabe berebiziko lanean ari zen “infiltratu” bat baitzegoen Tolosaren bihotzean: Fidel Azurza alkatea.

“...hizo saber que tan pronto fue llamado telefónicamente la madrugada del día cinco para anunciarle el movimiento que se estaba preparando se trasladó inmediatamente a su despacho de la Alcaldía para olvidado totalmente su ideología de toda la vida ponerse al lado del Gobierno representado en esta Provincia por el Excelentísimo Gobernador Civil Sr. Muga sintiéndose gubernamental por que vio que la huelga era revolucionaria y afectaba a la unidad de la Patria poniendo en peligro a España.

“Dijo que desde el primer momento se preocupó de tomar medidas encaminadas a la defensa de los intereses morales y materiales así como a la seguridad de las vidas y haciendas del vecindario; pero que haciéndose cargo de que no contaba ni disponía

¹⁰³ *Ibidem.*

¹⁰⁴ ABC, 1934-11-10.

¹⁰⁵ El Día, 1934-10-13.

¹⁰⁶ ABC, 1934-10-7.

¹⁰⁷ El Día, 1934-10-12.

de elementos suficientes para garantizar debidamente unas y otras cosas expuso al Sr. Gobernador la situación verdad [sic] de la localidad y la que en su autoridad se encontraba, en las constantes conferencias telefónicas que tuvo durante todo el día y noche en los que no abandonó su despacho, hasta que consiguió sus propósitos con la presentación de fuerzas primero del Regimiento de Ingenieros y más tarde de Guardias de Asalto que con las que se disponían en la villa de Guardia Civil y Miqueletes que consideró y fueron suficientes para que fuera renaciendo la confianza y con ella el orden y la tranquilidad”¹⁰⁸.

Ez ditugu elkarriketak ezagutzen, ezta alkateak Gobernadore jauna (ez dakigu zibila edo militarra) konbentzitzeko zein argudio erabili zituen ere, nahiz eta argudio handirik beharrik ez izan, horren aipamena bere loria pertsonala handitzeko bakarrik baitzen. “El Día”ko kazetariak grebalarien “desmán” haiek guztiak ekidingo zituen indar armaturik ez zegoela aipatzen zuen, “desmán”ak aipatzen ez bazituen ere, eta gertakarien amaiera ezagutzen zuen pertsona baten segurtasun osoz eman zuen bere sententzia: “no se podía seguir así”¹⁰⁹. Donostiako Erregimenduko Ingeniarien Konpainia bat Tolosara bidean zegoenaren zurrumurrua zabaldu omen zen Tolosan, ez dakigu grebalariek Donostiako grebalarien komunikazioen bat jaso zutelako edota Tolosako Udalak berak berri hori zabaldu nahi izan zuelako. Errebeldeak errepidera irten ziren erresistentziarako nukleoak antolatuz. Kazetariaren arabera hiriko bizilagunengan ordena eta morala berrezartzeko itxaropena zabaldu zen. Ingeniarien konpainia bat ari zen hurbiltzen “El Día”ren arabera, “La Constancia” egunkari karlistak Artilleria Konpainia zela adierazi zuen¹¹⁰, ABCk berriz Infanteriakoa¹¹¹. Azurza alkatearen hitzei jarraituz Ingeniarien Erregimendukoak eta *geroago* Asaltoko Goardiak etorri zirela pentsatu behar dugu, nahiz eta ez den oso argi geratzen Asaltokoak noiz etorri ziren, larunbatean jada Tolosan baitzeuden eta egun berean alde egin baitzuten, egun batzuetara berriro etorritik. Artilleriakoa ere bertaratu zirela pentsatu behar da, El Día-ko korrespondentzialak beraiei egozten baitie Telefonoen Zentrala errekuperatu izana.

Eguerdiko ordubatak aldera iritsi zen Ingeniarien Konpainia, Francisco Tiestos Oviedo Ingeniarien Kapitainaren eta Perez de Eulate eta Ruiz de Velasco tenienteen gidaritzapean¹¹². Kaosezko eszena bat deskribatzen digu “El Día”ko kazetariak. Herritar batzuk txaloz agurtu zuten tropa, beste batzuek euren “desagrado en forma algo violenta” adierazi zuten, zehaztasun gehiago ematen ez badu ere. Horren aurrean (ez dugu “horren” hori ezagutzen) Konpainia zuzentzen zuen ofizialak (kazetariengan hierarkia militarren jakintzarik eza nabaritutako dugu askotan) tiro egitea ordenatu zuen. Bi ordutan Tolosaren kontrola eskuratu zuten. Grebalarien eginkizunak bideak itxi eta komunikabideak etetea izan bazen, Ingeniarien lana hain zuzen barrikadak desegin eta Artilleriakoa kideek Telefono Zentrala berreskuratzea izan zuten. Hiriko puntu estrategikoetan kokatu ziren, besteak beste Udaletxean, Areto Kapitularra beraien zentru eta bizileku bilakatuz¹¹³.

¹⁰⁸ Tolosako Udal Artxiboa, A-1 228 (*Aktak*, 1934 ABR-1935 ENE), Fol. 134v-135r, 1934-10-24ko udal plenoa.

¹⁰⁹ El Día, 1934-10-12.

¹¹⁰ La Constancia, 1934-10-12.

¹¹¹ ABC, 1934-10-7.

¹¹² Tolosako Udal Artxiboa, Gutunak-Udala, 611 E.7.2. 1934, “Ayuntamiento 1934”, Fol.175r. 1934-11-6ko gutuna.

¹¹³ El Día, 1934-10-18.

Sarrerako tiroketetan “desgraziarik” eman ez bazen ere, egunean zehar emandako deskarga kontaezinetan (autorearen hitzak erabiliz), Julian Rouge gaztea hil zen, “Cuarto de Socorrora” iritsi aurretik, Rondilla kalean jaso zituen tiro kopuruarengatik, kazetariak “baño de sangre” bezala kalifikatzen duena. Prentsan zabalduko zen Tolosako hildako bakarra berau izan zen eta ez zen heriotz honen inguruko informazio gehiegirik eman. Udal plenoetan, urriaren 17koan eta urriaren 24koan, bere amari dirulaguntza bat emateaz hitz egin zen, baina ez zen zehaztasun gehiago eman.¹¹⁴ “La Constancia”k ematen digu heriotz honek halako prentsa ez izanaren azalpena: sindikalista zen¹¹⁵. Ez prentsagatik ez Udalak ekoiztutako dokumentuengatik ezin jakin dezakegu zein filiaziotakoa zen gaztea. Aldi berean Tolosako gertakariak zirela eta, “gehiegikeriengatik” Don Germán Saez Vaquerizo “Guardia de Vigilancia”ren aurkako salaketa topatuko dugu instantzia militarretatik, eta ez ginateke erratuta ibiliko halako zentzuren bateko gehiegikeriaren bat burutu zuela baieztatuko bagenu. Alkateak Gobernadore Zibilarekin trukaturako gutunetan, Udal pleno batean egin zuen hitzaldian eta eta Guardia diurno batek Polizia Munizipalaren aurrean egin zuen salaketa batean behin eta berriro errepikatuko zaigu bere izena¹¹⁶.

¹¹⁴ Urriaren 17ko plenoan gaiaren azterketa hurrengo egun baterako uztea erabaki zen, non grebaren inguruko gora-beheretaz hitz egingo zuten espreski. “...lamentó que la revuelta causara una victima, que como siempre era de condición humilde por lo que era más dolorosa, en tanto que los dirigentes de ella se ocultaban en sus madrigueras después de engañar y ofuscar a pobres gentes.” Hitz hauen ostean alkateak ez zuen Julian Rouge gehiago oroitu. Arsuaga jaunak gogoratuarazi zuen amari donatiboren bat ematearen gaia. Udala ados agertu zen eta Alkatezari eman zion kantitatea finkatzeko eginkizuna. (*Tolosako Udal Artxiboa, A-1 228 (Aktak, 1934 ABR-1935 ENE), Fol. 135v, 1934-10-24*) Gaia ez zen gehiago aipatu plenoetan eta Alkatezari eta Udaletik irtendako gutunetan ez da zentzu horretan zuzenduriko gutun edo notifikaziorik topatu. Hitzetan geratu zen promesa seguruenik.

¹¹⁵ La Constancia, 1934-10-12.

¹¹⁶ Misterio kutsu batez inguraturiko pertsonaia dugu Vaquerizo, Udalaren paperetan heroi antzeko bat bilakatu baitzen grebaren lehen egunetan. Alkateak Udal plenoetan berak burututako papera azpimarratu zuen, eta azpimarratu esan nahi da Ingeniarien Kapitaina eta Tenientea, eta Udaleko idazkaria goraipatu ostean Vaquerizo bezalako zaintza agente xehe baten fideltasunaz hitz egin zuelako batez ere (*Tolosako Udal Artxiboa, A-1 228 (Aktak, 1934 ABR-1935 ENE), Fol. 134v, 1934-10-24*) eta Gobernadore Zibilari bidalitako gutun batean haren irudi garbia eskaini ziolako:

“El Sr. Vaquerizo incansable en su labor, en la que nada le arredró, concurrió a los sitios de más peligro, procedió al registro de habitaciones y practicó interrogatorios y detenciones de modo que satisfizo completamente a las Autoridades. (...)

“...como consecuencia de hechos acaecidos en la Casa Consistorial de esta Villa, le confirió [Alkatezari] el encargo de ejercer constante vigilancia sobre la persona del que expone, procediendo tan escrupulosamente en su misión, que más bien se excedió en el ejercicio de la misma.

“Por ello, Excmo Sr., al rogarle me dispense la libertad de elevarle este escrito, teniendo para ello en cuenta que el móvil que le guía, es el de exteriorizar la forma noble, leal y diligente con que en todo momento ha cumplido sus deberes el Sr. Vaquerizo, vivamente le agradecería disponga o consiga continúe formando parte de la plantilla de Agentes de vigilancia de esta localidad, pues por sus condiciones y cualidades, haber acudido a reuniones obreras, penetrado en los Centros donde se congregaban y labor realizada, conoce a los Directores del movimiento tolosano y puede prestar grandes servicios al orden y la tranquilidad”. (Fidel Azurzaren gutuna Gobernadore Zibilari, 1934-11-2, *Tolosako Udal Artxiboa, Gutunak-Alkateza, 633 E.7.3. 1934, “Alcaldía 1934”, Fol.425r.*)

Gehiegikeria batengatik Agente kargutik kendua izan zen. Mariano Sanz Ramos Gendarmeria Munizipaleko diurnoak iraultzaren egunetan Vaquerizo polizia gubernatiboaren aldetik irainak eta mehatxuak jaso zituela salatzen du, “que antes fui un monárquico indecente y que ahora era republicano socialista más otras palabras impropias de la seriedad de una autoridad, desde ese momento comenzó a perseguirme de una manera descarada, amenazandome que se la tenía que pagar”. Aurrerago “sujeto peligrosísimo” a zela bota zion publikoki, eta Ejertzitoko brigada bati Sanz Ramosek soldaduei hitz egitea debekatuarazi zion. Urriaren 20an atxilotua izan zen, Vaquerizoren salaketa baten arabera, Casa del Pueblotik armaz beteriko paketeak ateratzen aritu zelako. Sanz Ramos askaturik, berriro ere irainak jaso

Rouge gaztearen heriotzagatik kalteordainaren inguruko eztabaida izan zen Udal plenoan Azurza alkateak heriotzaren errua “al deorable movimiento revolucionario” egotzi zion. Juanita Bagüés gaztea ere tiroketa haietako batean zauritua izan zen eta titularrak “varios heridos” badio ere ez dugu gainerakoen identitatea ezagutzen egun horretan behinik behin¹¹⁷. “El número de descargas hechas por los de Asalto, soldados y guardias es imposible precisar. En numerosos lugares de la villa se pueden apreciar perfectamente los impactos de la bala”¹¹⁸.

Asaltokoek euren lana egin ondoren hiribildutik alde egin zuten Ingeniariak eta Goardia Zibila bakarrik geratuz. Kazetariak dioenez, Julian Rougeren hilketak grebalarien animoak erorrarazi zituen eta arratsaldeko betarako denak euren etxeetara itzulita omen zeuden, hiria kontrol militar zorrotz batenpean geratuz. Azurza alkateak gogotsu eskertu zien militarrei gutun bidez, Ingeniarien Konpainiari espreski, Tolosan burutu zuten lana:

“...en los momentos en que la alteración del orden público provocada por la huelga revolucionaria, llegaba a revestir caracteres de gravedad, cambió el sesgo del movimiento consiguiendo que las masas cesaran en su levantisca actitud y que su [militarren] caballeroso proceder, no exento de energía, evitara la realización de hechos vandálicos, contribuyendo con el tacto y pericia que obraron a que no se tradujera la huelga en una página de luto en la historia de la villa, renaciera la confianza en el vecindario y se restableciera el orden y la tranquilidad.

“(...) ...tributarles las más rendidas gracias por la ayuda que con altruismo digno de mención me prestaron y por su intervención fehaciente en las gestiones que como autoridad local me correspondían realizar en aquellos críticos momentos”.

(Alkatearen gutuna Ingeniarien Erregimenduko kapitainari, 1934-11-6)¹¹⁹.

Kaletik ibiltzea ia ezinezkoa bilakatu zen, indar armatuen “Altoak” eta “katxeoak” eguneroko ogia bilakatu ziren handik aurrera. Alkateak egun hartan argitaratutako Ediktua benetan argigarria da Tolosan finkatu zen ordena martzialaren inguruan: Lau pertsona baino gehiagoko taldeak eratzea debekatu egin zen eta hala egiten zuenak ordenaren perturbatzaile bezala hartuko zirela eta horri zegokion zigorra jasoko zutela eta indar militarra erabiliz taldea disolbatua izango zela zioen batetik, eta gaueko zortzietatik aurrera kalean ibiltzea debekatzen zen, premia handia izanez gero etxetik atera eta lehen eginkizuna agente batengana joatea zelarik bere babes eta

zituen Vaquerizoren aldetik, “zerbitzua traizionatu zuela” esanez (*Tolosako Udal Artxiboa, Polizia Municipal, A.8.1., artxiboaren sekzio honek ere antolaketarik ez duenez eta dokumentuen erreferentzia falta dela eta ezin da gehiago zehaztu*). Zerbitzutik botata amaitu zuen Vaquerizok azkenean, “gehiagikeria” ezezagun horrengatik. Urriko lehen egunetan ordenaren defendatzailearen eta kontrairaultzaren arketipo eta heroia bilakatu zen tolosarra hilabete baten buruan erori zen.

¹¹⁷ La Voz de Guipuzcoaren 1934-10-12ko alean bestelakoak dira datuak, agian izen nahasketa batean oinarrituta. Hauen arabera arratsaldeko lauretan Carmen Bagüés 28 urteko emakumea izan zen zauritua, errebotatutako balek eragindako hiru zaurirengatik, eta handik ordu erdira eraman zuten Julian Rouge gaztea. Azken honen kasuan errebotatutako bala batengatik hil zela dio, El Día kazetariak tirokaturik odol putzu batean hil zela esaten zuen bitartean. Albiste guztietan zehar “errebotatutako” bala asko ikusiko ditugu hala ere.

¹¹⁸ El Día, 1934-10-12.

¹¹⁹ Tolosako Udal Artxiboa, Gutunak-Udala, 611 E.7.2. 1934, “Ayuntamiento 1934”, Fol.175r. 1934-11-6ko gutuna.

bermerako. “Espero de la sensatez y cordura del vecindario cooperará al mantenimiento del orden público evitando toda ocasión de que la fuerza pública cumpla las órdenes que en su defensa se le tienen dadas.”¹²⁰ “La villa tomada militarmente” idazten zuen titular bezala kazetariak. Urriaren 6an etorritako militar haiek azaroaren 25ean alde egingo zuten Tolosatik, 51 eguneko okupazioaren ondoren. Baina ez da ahaztu behar presentzia militarrek ez duela grebaren amaiera adierazten. Tolosako korrespontsalak esaten zuenez grebaren zabalpena hainbestekoa zen oraindik ere ezen Tolosako Kasinoa ere greban zegoela¹²¹.

-Urriaren 7a, Igandea

Militarren presentziarekin grebaren fase berri batean sartzen garela esan genezake. Grebak jarraitzen du (igande batean hori nabaritzea zaila bada ere, batez ere astelehenera aurrera nabaritutako da), militarrek errepresioaren lehen pausuak ari dira ematen “katxeo” eta erregistroekin eta grebalariei aktibitatea Tolosako hiribildutik kanpora mugitzen da, pentsa liteke berriro ere indarra hartzeko nahiagatik horretarako Tolosa inkomunikatzea bilatuz. Iruñeatik Artileriako tropak zetozela, gero Eibarrera joango zirenak, Tolosatik gertu (ez da lekua zehazten) hainbat talde bilatu zituzten tren bideak erre nahiean. Atxilotu zituztenei estopak, olio poteak eta gasolina bidoiak aurkitu zitzaizkien eta gainerakoek mendira egin zuten ihes¹²². Tolosari dagokionean dirudienez, zinerik edota musikaririk ez zegoenez, bertako biztanleek mendira buelta bat egiteko aprobetxatu zuten lasaitasunaren bila “El Día”ren arabera, eta besteren batzuk ziurrenik grebaren berpizkundea sustatzeko biltzera. Egun hartan Gerra Egoeraren aldarrikapena egiten zen bando bat argitaratu zenaren datua dugu, 1934ko abenduaren 13an aldarrikapen honen zabalpen bat bidali zenean adierazten zen bezala¹²³, baina ezin izan dugu bando hori topatu. Ez zuen desberdintasun handiegirik erakutsiko Alkatearen Ediktuarekin, Gerra Egoera *de facto* eta *de iure* jada finkaturik baitzegoen. Zortzietarako erretiratzeko ordena eman zen eta handik aurrerako pasealari guztiak erregistratuak izan ziren¹²⁴ eta korrespontsalak aipatzen duenez soldaduz betetako kamioneta batek aldi aldi Tolosako kale guztietatik buelta bat ematen zuen errondan¹²⁵.

-Urriaren 8a, Astelehena

Igandean egun osoan zehar arnastu zen lasaitasunaren kontrapuntua gauean etorri zen. Grebalariek ez zuten errendiziorako asmorik eta militarren aurkako eraso armatuari ekin zioten. Igandetik astelehenerako gauean lehergailu indartsuak eztandarazi omen zituzten grebalariek eta igande gaueko hamarretatik astelehen goizeko 5ak arte iraun zuten leherketek. Soldaduek, goardiek eta mikeleteek tiroak jaso zituzten

¹²⁰ Tolosako Udal Artxiboa, Asuntos Políticos, E.5.6., S.F. 1933-1936.

¹²¹ El Día, 1934-10-12.

¹²² La Constancia, 1934-10-12.

¹²³ Gipuzkoako Komandante Militarren gutuna Tolosako alkateari, 1934-12-13 (*Tolosako Udal Artxiboa, Asuntos Políticos, E.5.6., S.F. 1933-1936*).

¹²⁴ *Tolosako Udal Artxiboa, Polizia Munizipala, A.8.1.* 1934ko azaroaren 18an Goardia Munizipalaren Inspeksioan zegoen goardiak horri zatitxo batean idatzirik utzi zuenaren arabera, Pedro Gonzalez Costa, 19 urteko saltzaile ibiltari galiziarra agertu zen urriaren 7an Inspeksio hartan “gaua igaro” zuenean kendu zitzaizkion laban baten eta bi arkatzen eskean, baina testuaren arabera Urriaren 9rako jada aske zegoen. Dirudienez halako atxiloketa “prebentiboak” ere ez ziren faltatu.

¹²⁵ El Día, 1934-10-12.

etengabe, egunkariak “paqueo”¹²⁶ bezala definitzen zutena. Hauen erantzun gisa indar armatuen deskarga itxiak ere gau osoan zehar zabaldu ziren.

Grebak orokorra izaten jarraitu zuen astelehenean. Militarren neurriak zorroztu egin ziren. Debekatu egin zen Tolosatik irtetea, horretarako salbokondutorik izan ezean, baina egunean zehar ez zen gatazka bortizik izan. Gaua izan zen berriro ere grebalariek euren ekimenerako erabili zutena. Udal plenoaren sesioa bertan behera utzi zen, Azurza alkatea eta Gurruchaga zinegotzia bakarrik azaldu baitziren, beste zinegotziak, euren boikot-dimisioa zela eta, agertu ez zirenez sesioa burutzeko beharrezko zinegotzi kopurua ez zegoelako¹²⁷ (aztertu behar dugun garai osoan zehar ohiko eta ez-ohiko sesioen txandakatzea emango da Tolosako plenoan, ohikorik ospatu ez zelarik aipatutako arrazoiaगतिक).

Gipuzkoako gobernadoreak probintziako egoerak hobera egin zuela aldarrikatu zuen astelehen hartan, estatu mailako prentsak biltzen duen bezala, baina bere baieztapena errealitateetik urrun zebilen. Iruñeako Mendiko Infanteriaren sekzioa zetorrela Tolosa inguruan berriro ere jendea trenbideak erretzen aurkitu zuten, bi atxilotuz eta autoritate militarren eskuetan ipiniz epaiketa sumarisimo baterako¹²⁸ (ABCren kronika hauek ez dute askotan zehaztasun kronologikorik erakusten, baina asteartean idatzia izanik aurreko egunari buruz ari dela pentsa liteke, igandeko gertakariekin nahastu bailiteke. Hartan ordea Iruñeako Artillería aipatzen zuen El Díak, hemengoan Mendiko Infanteria. Trenbideen aurkako ekintza bat baino gehiago egongo zirela baloratuta, albiste hau igandekoaren ingurukoa ez dela baloratu da, nahiz eta baieztapen definitiborik ezin eman). Era berean, Goardia Zibilaren tertzioko koronel-jefeak eta Donostiako Komandatzia jefea Tolosan izan ziren Estatuaren indarrak errebisatzeko eta euren lana zoriontzeko¹²⁹.

Bonba ugari ezandaraziak izan ziren leku desberdinetan, gehienak gaueko ordu batetatik ordubietara kontzentratu zirelarik. Astelehen arratsaldeko bederatzietan trenaren igaroaldiari bonbak jartzen saiatu ziren¹³⁰. Aurreko gauean bezala “paqueo” eta honen erantzuna amaigabea izan zen. Tiroketa hauetan balak etxeetara sartzen omen ziren eta lanera zihoan okin bat zauritua izan zen. 1934ko urriaren 12ko alean La Vanguardiak aipatzen zuenez Saturnino Argote okina, hirurogei urtekoa, zauritua izan zen lanera zihoala baina erreferentziaren arabera urriaren 11an gertatu zen hori. “La Voz de Guipuzcoa”k “El Día”ren data eta “La Vanguardia”ko identitatea biltzen ditu, Saturnino Argote Arrizabalaga, lanera zihoala soldaduen altoari kasu egin ez ziolako tirokatua izan zela aipatzean, baina egunkari honen arabera igande gaua-astelehen goiza izan zen tiroa jaso zuen unea¹³¹, “El Día”ren arabera astelehen gaua-astearte goiza. Hiru data ditugu, beraz, eta bi muturretakoen izena Saturnino Argote, tartekoa anonimo geratzen delarik. Ezin jakin bi pertsona desberdin izan ote ziren edota bat bakarra, hiru albisteetan zauritua okina dela bakarrik dakigu. Zaurituen kontaketa orokorrek ez digute askorako balio kasu hauetan, El Díaren kasuan bertan (“hildako bat eta lau zauritu”, gutxi gora behera egunkari guztietan errepikatzen dena), kontakizunetik bertatik lau zauritu baino gehiago konta baititzakegu¹³². Kazetarien nahasmenduan topatu behar

¹²⁶ Paquear: Disparar como los pacos. Paco: 1. En las posesiones españolas de África, moro que, aislado y escondido, disparaba sobre los soldados. 2. Combatiente que dispara en igual forma. *Iturria: Real Academia de la Lengua Española*.

¹²⁷ Tolosako Udal Artxiboa, A-1 228 (Aktak, 1934 ABR-1935 ENE), Fol. 128v, 1934-10-8.

¹²⁸ ABC, 1934-10-9.

¹²⁹ Ibidem.

¹³⁰ La Constancia, 1934-10-12.

¹³¹ La Voz de Guipuzcoa, 1934-10-12.

¹³² La Voz de Guipuzcoak hildako bat eta hiru zauritu adieraziko du, (bera da lau kaltetuen izenak ematen dituen bakarra, Julian Rouge (hildakoa), Carmen Bagüés (zauritua), Saturnino Argote (zauritua), Serafin

dugu okin zaurituaren “misterio” hau, baina argi izan behar dugu halako gertakarietan gertatutako zaurituak baino gutxiago esateko joera ez dela inongo misterioaren emaitza.

Serafin Chocorroren kasuan ere antzeko nahasketaren bat gertatzen da, “La Vanguardia”k dioenez hau ostegunean kokatzen baitu, baina kasu honetan probintziako egunkari bati fidagarritasun gehiago emango diogu Kataluniako egunkari batean agertutako albiste labur bati baino. Euria zela eta bostehun pertsona inguru gorde omen ziren Solana merkatuan eta han pilaturik zeudela tiro bat entzun zen arratsaldeko bostak aldera. Errebotez Serafín Chocorro izan zen zauritua eta nahiko larri¹³³, “Argia”n aipatzen zen zauritu larria berau izan zela pentsa daitekeelarik¹³⁴. Eta berriro ere azpimarratu nahi da, oraingoan ere ustez errebotez gertatu baitzen. “La Voz de Guipuzcoa”ren albisteetan Saturnino Argote okina bakarrik izan zen erreboterik gabe zauritutakoa; bai hildakoa eta bai egunkariaren kalkuluen araberrako beste bi zaurituek errebotez jaso zituzten tiroak.

-Urriaren 9a, Asteartea

“El Día”ko korrespontsalak grebak era berean jarraitu zuela dio, “en igual intensidad que los días anteriores”¹³⁵. Estatu indarrek hainbat aldiz burutu omen zituzten tiroketak eta gazte bat zauritua izan zen, bere izenaren berririk ez dugu ordea. Korrespontsalak dio herrian zabaldurik zegoen inpresioa hurrengo egunean lana berriro ere hasiko zela omen zela. La Vanguardiaren arabera, Udaletxean, komandante militarrek deiturik, patrioiak eta industrialak bildu ziren eta langileei lanera itzultzeko dei ziezatela esan ziela militarri dio albisteak¹³⁶. Militarrek eta patrioiak izango ziren iraultzaren osteko errepresioa antolatuko zutenak bai Gipuzkoa mailan eta bai Tolosakoan. Autoritateei patrioiek eskeini zieten kolaborazioa izugarria izan zen aurrerago bistan geratzen den bezala Udalaren eta lantegien arteko korrespondentziagatik. Leon Carrasco Gobernadore militarrek “El Pueblo Vasco”n eginiko adierazpenetan argi utzi zuen¹³⁷. Tolosan ere argi geratuko zen patronalak errepresioan zuzenki eta zeharka izan zuen papera. Komandante militarren bandoaren argitalpena aipatzen digu La Vanguardiak, lanera itzultzeko eskatuz langileei. Badaezpada ere Donostiatik Asaltoko goardiez beteriko bi kamioi bidali zituen¹³⁸. Larunbatean Tolosatik Donostiara joan ziren Asaltoko goardiak asteazkenean lantegiak zaintzen egongo ziren.

Chocorro (zauritua)), Argiak hildako bat eta hiru edo lau zauritu, El Díaren kontakizunaren arabera hildako bat eta lau zauritu baino gehiago egon beharko lukete, era berean La Vanguardiak zauritu bat aipatzen digu besteen kroniketan egun horretan aipatzen ez dena eta Argiak baieztatzen duena,... Ikus daitekeen bezala, kontaktak bajura egin ziren beti.

¹³³ La Voz de Guipuzcoa, 1934-10-12.

¹³⁴ Argia, 1934-10-21: “Illa bat omen da an eta iru edo lau zauritu. Auetatik bat naiko gaizki.”

¹³⁵ El Día, 1934-10-12.

¹³⁶ La Vanguardia, 1934-10-12. Pasarte hau ostegunean gertatu zela dio egunkari honek baina horrela izana nahiko zalantzatsua da, iturri honen erabilerak alor kronologikoan erakutsi dituen akatsengatik, Urriaren 12ko aleak aurreko egunari buruz hitz egiten bazuen ere (datarik ez aipatzean badirudi egunkaria aurreko egunaz ari dela) ikusi baita laburpen nahasi bat dela eskeintzen duena eta aurreko akats-kasuetan data bi edo hiru egun mugitzen baita aurrera. Gertakari hauek astelehenean edo asteartean kokatu behar ditugu ziurrenik eta horrexegatik erabaki da Asteartean finkatzea, asteazkenetik aurrera hasi baitziren lehen lantegien irekiera saiakerak patrioen aldetik.

¹³⁷ Carrascoren hitzak: “Temí que actitudes de índole particular en los patronos echaran por tierra la disposición de los obreros favorable a entrar en el trabajo. En vista de ello llamé a una representación de la Patronal y tuve la satisfacción de encontrarlos tan admirablemente dispuestos y compartiendo mi criterio, que ellos mismos, redactaron el bando, que publiqué para reanudar el trabajo en la mañana del viernes”. El Pueblo Vasco, 1934-11-6.

¹³⁸ La Vanguardia, 1934-10-12.

-Urriaren 10a, Asteazkena

Egun honen inguruan “El Pueblo Vasco”k emandako albistea optimistegia zen benetan. Tolosan lantegietan berriro ere lanari ekin zitzaizkion,¹³⁹ “El Día”koak fabrika eta tailerren gehiengoak itxita jarraitu zutelaren esaten zuen bitartean, ireki ziren gutxi haietan joan ziren langile gutxiengatik lanik ezin egin izan zelarik¹⁴⁰. Langile klasea lanera joateko mehatxatua eta gonbidatua izan zela dio korrespondentsal honek eta lantegien sarreretan Asaltoko goardiak eta tropak ezarri ziren grebalariei inongo koakziorik eman ez zedin. Egun horretan ospatutako udal plenoan (aurrekoa egin izan ez zelako “ez-ohikoa” zen hau, hau da, zinegotzi guztiak karlistak ziren) Alkateak moziorik edota proposiziorik ez aurkezteko eskatu zuen “para poder fiscalizar cuanto se deliberaba y acordara”¹⁴¹. Zinegotziak ados agertu ziren eta bertan behera utzi zuten sesioa.

-Urriaren 11a, Osteguna-Urriaren 12, Ostirala: Grebaren azkenak

Urriaren 12a grebaren gainbeheraren data bezala hartzen badugu, zalantzarik gabe Tolosako gertakariak euren intentsitatea azken uneraino mantendu zuten. Kontrol militarra zirauen eta La Constanciaren arabera gauero izan zen “paqueo”¹⁴². La Vanguardiaren arabera gauean zehar zenbait lehergailuk eztanda egin zuten. Atxiloketak eman ziren, garrantzitsuenetakoa Irura herritik (Tolosatik 2 kilometrora Donosti aldera N-1etik aurrera eginez) gertu ospatzen ari zen bilera klandestino batena izan zelarik¹⁴³, dirudienez grebalariek mugimendua berrantolatu nahi baitzuten eta hori egiteko modu bakarra Tolosatik kanpo biltzea izan zitzaien. Hamabost-hogei pertsona atxilotu zituzten bilera horretan. Egun hartan atxilotuen kopurua orokorrean hogeita hamarretik gorakoa zela kalkulatu du kazetariak eta hauen artean emakume batzuk, errepresio eta kontrol militarra benetan zorrotza izan zelarik.

Grebaren osotasuna ez zen aurreko egunetan bezain ongi bete. El Día asteazkenaz hitz egiten badu ere, La Vanguardiak eta ABCk diote ostegunean Tolosako autobusen eta tranbienen zerbitzua hasi zela, Konpainiak bota zituen langileak berriro ere onartu zituen. Greba orokorrak irauten zuela esaten bada ere¹⁴⁴ asteazkenean baino jende gehiago joan zen lanera, lantegi asko itxita bazuden ere eta askok ez-ohiko funtzionamentua bazuten ere¹⁴⁵. Komertzioak herria hornitzeko bakarrik iriki ziren eta behin hau egindakoan itxi.

Giro gatazkatsuak oraindik ere irauten zuen. Gaueko hamaiketan bonba eztandak entzun ziren Justizia Plazan eta Elosegui kalean, baina zauriturik gabe. Aurreko egunetako atxilotuak Donostiara garraiatuak izan ziren. Azken datu gisa Tolosako “El Día”ren korrespondentsalak ematen zuen datua, greba osoa orokorki hartuz, 70 atxilotu baino gehiagokoa zen. Hauen artean bi gutxienez udaltzainak: bata lehen aipatu dugun Mariano Sanz Ramos, ustez Casa del Pueblotik arma paketeak ateratzen lagundu zuena; bestea Agustin Uterga Ugalde, “Asociación de dependientes municipales”en

¹³⁹ El Pueblo Vasco, 1934-10-12.

¹⁴⁰ El Día, 1934-10-12.

¹⁴¹ Tolosako Udal Artxiboa, A-1 228 (Aktak, 1934 ABR-1935 ENE), Fol. 129r, 1934-10-10.

¹⁴² La Constancia, 1934-10-12.

¹⁴³ El Día, 1934-10-12.

¹⁴⁴ *Ibidem*.

¹⁴⁵ El Día, 1934-10-12.

presidentea., Guadalupeko gartzelara kondenatu zutena, “como consecuencia de los sucesos últimamente acaecidos”¹⁴⁶.

Urriaren 12an argitaratuko zen alerako idatzitako artikuluan, egun bereko goizeko albiste batzuk idazteko denbora izan zuen: “las fuerzas de Asalto actúan con su acostumbrada actividad, siendo frecuentes las cargas”¹⁴⁷. Baina jada grebaren azkenetan zeuden. “La Voz de Guipuzcoa”k greba amaitzear zegoela eta hurrengo eguneko larunbateko feria modu lasaian ospatu ahal izango zela aipatzen zuen. Errepresioaren antolaketa areagotu zen egun hauetatik aurrera mugimendu hura bere sustraietatik ebakitzeko. Aberri Etxea klausuratua izan zen, armak gordetzen zituenaren susmoagatik, eta hurrengo egunetan EAJko afiliatu batzuek, errepresalien beldur, baja eman zutenaren zurrumurrua zabaldu zen¹⁴⁸. Etxeen erregistroak masiboak burutu ziren, hurrengo egunetan bezala. Gorriti plazako 5 zenbakian lasto artean CNTko hiru karnet topatu ziren, Aniceto Cenzanorena, Amado Valerirena eta Rufina Valerirena. Aniceto hau jada Guadalupeko gotorlekuan zegoen bilera klandestino batean atzemana izanagatik¹⁴⁹. “La Vanguardia”ren arabera atxilotuak Donostiara sistematikoki eramaten jada hasita zeuden¹⁵⁰. Mugimenduaren etsaiek Arrazaren Eguna inoiz baino gusturago ospatu zuten¹⁵¹.

3.2.-Mendekutik mendekura:

Garaileen errepresioa eta galtzaileen erantzuna

-Erregistroak, atxilotuak eta aurkitzen ez diren armak

Urriaren 12an Muga gobernadoreak kazetariak bildu zituenean probintzia osoan, Errenterian eta Pasaian izan ezik, lasaitasun giroa zabaldu zela aipatu zien eta lanak berriro ere hasi zirela. Egun hartan lan egin ez zuten bakarretakoak Bankuak eta bulego ofizialak izan ziren kapitalean, festa nazionala ospatzeko. Probintzia baketurik zegoen. Erregistroak areagotu egin ziren eta harpidetza publikoak antolatu ziren Ejertzitoari euren esker ona adierazteko emango zitzaion diru kantitate bat biltzeko¹⁵². Iparraldeko trenbide Konpainia Gobernuburuarekin bildu zen Ejertzitoari, egoera iraultzailearen garaian erakutsi zuen jarrera ausartagatik, 100.000 pta emango zizkiola hitz emanez. Arrasatetik, Tolosatik eta Bergaratik atxilotu gehiagok jarraitu zuten iristen Donostiara¹⁵³. Urriaren 14rako 424 atxilotu zeuden Guadalupen eta egunero prentsak ia esaldi Berbera errepikatzen zuen: “Han llegado numerosos detenidos de Mondragón,

¹⁴⁶ Guadalupeko gotorlekuko Komandante Militarrek Tolosako Alkateari 1934ko urriaren 22an bidalitako gutuna. *Tolosako Udal Artxiboa, Polizia Munizipala, A.8.1.* Azaroaren 28an egin zen udal plenoan Agustín Utergak bidalirik izkribu bat irakurri zen, non aipatzen zen bi egun lehenago behin-behineko askatasuna eman ziotela bere aurkako kargurik topatu ez zelako eta lanera itzultzea eskatuz, prozesua oraindik ere irekita zegoenez postu hori behin-behinekoa izango zela aipatuz. Ez zen erabakirik hartu. Bien bitartean Fidel Azurzak, gerra zibila piztean egingo zuen bezala, autoritateei hauek susmagarrien inguruan eskatzen zuten informazio guztia igortzen jarraitu zuen. 1935ko urtarrilaren 19an kasuak oraindik ere irekita jarraitzen zuen, eta alkatea Agustín Utergaren inguruko informazio bila zebilen: urtarrilaren 26an jaso zuen Goardia Munizipalaren Sub-Jefearen erantzuna: Uterga “Asociación de Dependientes Municipalesen presidentea zen, “altaneroa”, eta “casos de indisciplina” erakutsitakoa.

¹⁴⁷ El Día, 1934-10-12.

¹⁴⁸ El Día, 1934-10-17.

¹⁴⁹ *Tolosako Udal Artxiboa, Polizia Munizipala, A.8.1.*

¹⁵⁰ La Vanguardia, 1934-10-12.

¹⁵¹ La Voz de Guipuzcoa, 1934-10-13.

¹⁵² *Ibidem.*

¹⁵³ El Día, 1934-10-13.

Tolosa y Vergara”¹⁵⁴. Urriaren 5ean autokamioia erre zuten gazteak atxilotuak izan ziren 14an¹⁵⁵. Gerra egoera aldarrikatzen zuten bandoak ea iritsi zitzaizkion galdetzen zion Komandante militarrek Tolosako alkateari¹⁵⁶.

Atxiloketak eta armak aurkitzeko erregistroak islatzen dira prentsan. Hauen arabera, asaltoko goardiek eta goardia zibilek eguniko erregistro hauek ez zuten emaitzik eman. Casa del Pueblo ere erregistratua izan zen baina bertan ere ez omen zen ezer aurkitu¹⁵⁷. “Los domicilios de los más caracterizados socialistas de la villa” izan ziren aztertu zirenak, baina aurreko zatian aipatu denagatik ez da ahaztu behar CNTkoak ere jopuntuan egon zirela. Jada atxiloturik zeuden sozialista batzuk aske utzi behar izan zituzten euren aurkako kargurik topatu ez zelako, baina hala ere ugari omen ziren San Cristobaleko gotorlekura bidaliak izan zirenak¹⁵⁸. Arestian aipatzen genuen goardia munizipal bat urriaren 17an izan zen atxilotua, egunkari beraren arabera atxilotzen zen bigarren goardia zelarik. Ostiral goizean, urriaren 19an, Tolosako kartzelan zeuden 46 atxilotuak Guadalupera eraman zituzten. Hauetatik 20 inguru Oriakoak ziren, bertan aurkitu ziren armen gordelekuak zirela eta. Autokamioia erre zuten 6 gazteak prozesatuak izan ziren, Ondarretako kartzelara bidali zituztelarik. Hilaren 19aren amaieran 3 atxilotu bakarrik geratzen ziren Tolosan¹⁵⁹. 22rako behinik behin Agustin Uterga goardia munizipala Guadalupeko gotorlekuan aurkitzen zenaren berri dugu¹⁶⁰. Erregistroak egiterako orduan, Asaltoko goardiek bi langile eraman zituzten beraiekin pikatxoiez eta bestelako harramintez horniturik¹⁶¹, ziurrenik ustezko arma gordelekuak bilatzerakoan zulaketak burutzeko.

19an oraindik ere ez omen zuten armarik topatu, bilaketek eta erregistroek oraindik ere jarraituko zutela azalduz. Villabonan eta Andoainen atxilotuak izan zirenak Tolosako kartzelara eraman ziren. Hilaren 17rako, El Pueblo Vascoen arabera, atxilotuen espedizio bat espero zen, hauen artean tolosarrak eta villabonatarrek¹⁶². ABCren arabera, hilaren 18an ere Arrasatetik, Bergararik, Tolosatik eta Villabonatik Donostiara atxilotu gehiago joatea espero zen. 576 ziren jada probintzian atxilotutakoak¹⁶³. Beste aldetik, lantegien segurtasuna jada ziurtaturik zegoela ikusirik, Ingeniariaren Konpainiaren zati bat, Tiestos Oviedo kapitainarekin, Donostiara itzuli zen, Ruiz de Velasco lehen tenienteak Tolosako eta inguruko herrietako komandantzia militarra bere gain hartuz¹⁶⁴. Igandeko “La Voz de Guipuzcoa”k, orriaren ertz batean, ohartxo bat idatzi zuen Tolosaren inguruan: “SIN NOTICIAS. Ni en la Alcaldía ni en la Inspección de Policía, había nada noticiable, lo que demuestra que la tranquilidad es completa”¹⁶⁵.

-Garaileen festa edota “errepresio” sinbolikoa

Aste baten buruan, urriaren 12tik 19ra bitartean, errepresioaren (erregistro eta atxiloketak) alderik fisikoena burutu zuten Estatu indarrek. Ditugun datuen arabera,

¹⁵⁴ ABC, 1934-19-14.

¹⁵⁵ *Tolosako Udal Artxiboa, Polizia Munizipala, A.8.1.*

¹⁵⁶ *Tolosako Udal Artxiboa, Asuntos Políticos, E.5.6., S.F. 1933-1936.*

¹⁵⁷ La Voz de Guipuzcoa, 1934-10-18.

¹⁵⁸ El Día, 1934-10-16.

¹⁵⁹ El Día, 1934-10-20.

¹⁶⁰ *Tolosako Udal Artxiboa, Polizia Munizipala, A.8.1.*

¹⁶¹ El Pueblo Vasco, 1934-10-18.

¹⁶² El Pueblo Vasco, 1934-10-17.

¹⁶³ ABC, 1934-10-18.

¹⁶⁴ La Voz de Guipuzcoa, 1934-10-18.

¹⁶⁵ La Voz de Guipuzcoa, 1934-10-21.

salbuespen bakarrenetakoak, Tolosatik pasaeran zeuden bi iraultzaile “arriskutsu” urriaren 31an atxilotu zituztela¹⁶⁶, edota benetan salbuespen garrantzitsua dena, Antonio Ibañez Tapia Sindicato Unico-ko presidentea, anarkista, azaroaren leian atxilotu zutela dira¹⁶⁷. Azurza alkateak Julian Rougeren heriotzaren inguruan muturreko paternalismoa erakutsi bazuen ere, gatazka harek kalteturikoak denak zirela azalduz, urrun zegoen gerora erakutsi zuten jarrerarekin. “Gerra” bat izan zen egun haietan bizitu izan zutena, gerraren aspektu militarra barne, eta beraiek, Udaleko indar kontserbadoreak, Tolosako lantegietako patronala eta errepresioan parte hartutako indar militarrek garaileak ziren, bi bandoren arteko borroka hartan. Statu quo-a mantentzearen aldeko borroka bat burutu zuen bando garaileak, Azurza bezalako tradizionalista batek, bere bizitza osoa Errepublikaren aurka eman zuenak, errekonozitzen zuen une gogor haietan Errepublikaren eta gobernuaren aldean ipini behar izan zuela. Prentsa kontserbadorearen titularretan ohikoak izan ziren “¡Viva la República!” bezalako oihuak, Errepublikaren defentsa, une hartan, kontrairaultzaren defentsa bilakatu baitzen.

Urriko Iraultza Errepublika garaiko azken tentsio puntu gorena izan zen gerra zibila piztu aurretik eta ziurrenik Estatu kolpearen antolaketarako pizgarri esanguratsua bilakatu zen denborarekin, baina unean bertan badirudi ez zela eskuinaren aldetik Errepublika eraisteko saiakerarik burutu, Errepublika defendatzearekin euren interesak defendatzeko aski izan zuten. Ondorioz, Errepublika oinarritzat harturik, erregimen hark ahalbidetzen zien pausu kontserbadorerik handiena burutzea izan zen euren helburua. Berriro ere halakorik gerta ez zedin prestatu egin behar ziren eta hala egin zuten “errepresio” nolabait ixilagoan. Baina isiltasunak bakarrik ez zuen balio. Garaileek garaipena eskuratu zutela gogorarazi behar zieten etengabe garaituei, hau iraultzaileentzat eskola-lekzio bilaka zedin. Arranditasunez euren gailentasuna lau haizetara zabaltzeko “triumphus” zeremoniotsua antolatu zuten, gerra zaharren amaiera eta gerra berrien hasera izan ohi dena.

Irudia behinik behin, edota eman nahi izan zen mezua, indar militarrek Gipuzkoa birkonkistatu izanarena izan zen. Horretarako Gipuzkoa osotik igaroko zen desfile militar bat antolatu zen eta honen abiapuntua Urriaren 24an izan zen Donostiako Boulevardetik, Carrasco gobernadore militarren diskurtsuen eta kaleetatik eginiko desfileen ostean¹⁶⁸. Urriaren 26an Zumarragatik, Urretxutik, Bergararik eta Arrasatetik igaro ostean tropak Tolosara iritsiko dira eta Arrameletik bertako musika bandaren melodiek “San Juanen martxa” joz lagundurik udaletxeraino iritsi eta bertan ordenaren defendatzaileen eta Azurzaren aldeko hitzak jaurtiko dira, gero *lunch* batekin amaituz¹⁶⁹. “Errepresio” sinboliko edota ideologiko hau ez da honekin etengo ordea. Urriaren 28an, tradizionalistek antolaturik, gertakari iraultzaileetako martirien aldeko hileta ospatuko da¹⁷⁰. Era berean, halakoak ere karlisten ekimenez, errosarioen otoitzak antolatuko dira karlisten egoitzan Iraultzan hildako martirien alde. Azurzak, oraingoan Udalaren izenean antolatuz, Azaroaren 12rako Iraultzan hildako guztien aldeko beste ospakizun erlijioso bat prestatuko du¹⁷¹. Probintzia mailan oro har, eta Tolosan bertan, grebalarien aldetik hildako gehiago izan baziren ere, argi geratzen zen hau aurrean zuenarentzat “Iraultzan hildako guztiak” zeintzuk ziren. Guztiak izate horrek ere bazuen bere zentzua. Gogoratu behar da Julian Rougen heriotza zela eta Azurzak konspiratzaile batzuek engainaturiko gazte bat bezala aurkeztu zuela gaztea eta

¹⁶⁶ La Voz de Guipuzcoa, 1934-10-31.

¹⁶⁷ Tolosako Udal Artxiboa, *Asuntos Políticos, E.5.6., S.F. 1933-1936.*

¹⁶⁸ La Voz de Guipuzcoa, 1934-10-25.

¹⁶⁹ La Voz de Guipuzcoa, 1934-10-27.

¹⁷⁰ La Voz de Guipuzcoa, 1934-10-27.

¹⁷¹ El Día, 1934-11-14.

ondorioz bere errukia merezi zuen pertsona bezala. Bando garailearen diskurtsua tolosar guztien defentsaren diskurtsuarekin konbinatu nahiko da zentzu honetan. Ahaztu gabe utzi ezin den puntua, errepresio modu honetan, Elizak, goi hierarkiek nahi bada, hartutako posizionamendua da eta ondorioz, honek ere, Tolosa bezalako hiri katoliko batean zuen esangura.

-Ordenaren defendatzaileek jasotako lezioak eta bestelako "errepresioak"

Aurreko plenoetan giroa baretu arte greba iraultzailearen inguruko bilerarik egingo ez zela aipatu zen¹⁷². Urriaren 12a grebarentzat infleksio puntu bat izan bazen, 24 ere hala izan zen. Aurreko egunak erregistro eta atxiloketetarako izan ziren. Urriaren 24tik aurrera egoera berrantolatzen hasi ziren autoritateak. Horren adierazgarri 24ko udal plenoa. Gertakarien nolabaiteko laburpena egin zen, Gobernadoreen, Alkatearen eta indar militarren papera goraiatuz. Bertan topatzen ez ziren autoritateei esker onak ematea erabaki zen (Ingeniariaren Konpainiari bidalitako gutunaren adibidea bakarrik topatu ahal izan da)¹⁷³. Baina esker ematea ez zen hitzezkoa bakarrik:

“Agregó que el Ayuntamiento debía expresar su gratitud a las fuerzas del Gobierno de modo práctico y al efecto propuso se abriera una suscripción encabezándola con mil pesetas sintiendo que los grandes perjuicios originados al Municipio con la huelga revolucionaria que se calcula han ascendido próximamente a quince mil pesetas, no permita destinar mayor suma para sufragar en primer termino los gastos de estancia de las fuerzas y destinar el remanente a engrosar la suscripción para premiar la patriótica labor que han realizado para conseguir el restablecimiento del orden y la tranquilidad. Seguro de que el Ayuntamiento elevaría a decreto su proposición pidió se hiciera saber por laudo al vecindario lo acordado disponiendo que la entrega de donativos podrá verificarla en la Tesorería del Municipio”¹⁷⁴.

Hurrengo egunean Tolosako bizilagunak suskripziora gonbidatzen zituen bando bat zabaldu zen hirian¹⁷⁵. Bai Tolosan, bai Gipuzkoan, bai Estatu mailan Ejertzitoari eskerrak emateko modu hau hedatu zen, garaiko prentsan hainbat eta hainbat adibidetan ikusten den bezala, bai enpresen aldetik, bai pertsona pribatuen aldetik¹⁷⁶. Bazuten zer eskertu tropa hauei eta hurrengo batean fideltasun berarekin joka zezaten benetan desiatzen zuten, nahiz eta desertzio kasurik, erabili ditugun iturriak erabilita, Tolosan behinik behin ikusi ez bada ere, goardia monizipalena kontuan hartzen ez badugu. Salbuespen benetan berezia Alfonso Anta Castañosena dugu. Gerra zibileko gerra kontseilu batean prozesatu zuten 32 urteko Legioko Sarjentu hau. PSOeko militantea zen, gerra zibilean batailoituaritatu borrokatuko zuena, eta 1943ko sententziaren

¹⁷² “...la presidencia (...) le rogó prescindiera de insistir en su demanda pues esperaba el exponente a que desaparezca totalmente el actual estado de cosas para tratar de varios extremos y particulares relacionados con la huelga y entonces podrá tratarse del asunto en los distintos aspectos que ha ofrecido”. 1934-10-17ko udal plenoa. *Tolosako Udal Artxiboa, A-1 228 (Aktak, 1934 ABR-1935 ENE), Fol. 131v*.

¹⁷³ Tolosako Udal Artxiboa, Gutunak-Udala, 611 E.7.2. 1934, “Ayuntamiento 1934”, Fol.175r. 1934-11-6ko gutuna.

¹⁷⁴ *Tolosako Udal Artxiboa, A-1 228 (Aktak, 1934 ABR-1935 ENE), Fol. 135r*.

¹⁷⁵ *Tolosako Udal Artxiboa, Asuntos Políticos, E.5.6., S.F. 1933-1936*.

¹⁷⁶ Adibide gisa diru-emateen zerrenda bat La Voz de Guipuzcoan, 1934-11-4.

arabera 1934ko mugimendu iraultzailean atxilotua izan zena¹⁷⁷. Ez dakiguna da ea Tolosan izan zen atxilotua edo ez, baina pentsa liteke desertzio gehiago ere egon zirela, batez ere graduazio baxuenetako militarren artean. Zentzu horretan garrantzia berezia hartzen zuen Ejertzitza gustora edukitzeak eta suskripzioaren helburu nagusia, haien kostuak ordaintzeaz gain, horixe izan zen. Plenoaren aurreko egunean gobernadore militarrek jaso zuen idatzi batean, Gipuzkoako Merkataritza eta Industria Kamarak, gobernadorearen bidez ministroen Kontseilura zuzentzen zenak, Goardia Zibilentzako eta Asaltoko Goardientzako koartel bereziak ezartzeko eskatzen zuen Eibarren, Arrasaten, Beasainen eta Tolosan, horretarako Kamarak berak dirua ipiniko zuela azalduz¹⁷⁸. Tolosan plenoan erabaki hori onartua izan zen azaroaren 21ean¹⁷⁹. Patronala eta autoritateak grebatik ateratako lekzioak praktikan jartzen ari ziren. Argi geratu zen 10 goardia zibil, mikelateak eta goardia municipalak ez zirela aski halako mobilizazio bati aurre egiteko. Oviedoren berreraiketa bultzatzeko eta indar militarren lan bikaina goraiatzeko kanpaina publiko honek hilabeteak iraun zituen.

Prensaren arabera armik ez zen topatu Tolosan eginiko erregistroetan. Hau benetan harrigarria da eta halaxe zen baita ere garaiko kazetarietatik eta autoritateetatik ere. Tiroketak eta lehergailuak aipatu ditugu ordea narrazioan zehar eta etorkizuneko gerra kontseiluetan armak erabili izana edota lehergailuen jabe izatea egotzi zieten Julian Asensiori, Victor Asensiori, Emiliano Gonzalez Calleri eta Andres Subtil Sanzi, aurrerago ikusiko dugun bezala. Autoritateak ez dira geldi geratuko. Urriaren aurretik ikusi genuen nola jada Urtarrilerako nola armen jabetzaren kontrola bereziki zorrotz zen. Oraingo honetan garrantzia are eta handiagoa zen. Ruiz de Velasco jada Tolosako Komandante Militar bilakatua zenak Bando bat publikatu zuen 1934ko urriaren 28an, lizentziarik gabe armak zituzten haiek hogeita lau orduko epean udaletxera eraman beharko zituztela, hori egin ezean neurri benetan zorrotzak hartuko zirela azalduz¹⁸⁰ eta hilaren 29tik aurrera herrian zehar zabalduz¹⁸¹. Alkateak halako prozeduretan hartutako protagonismoaren erakusle, batez ere Tolosako bizilagunen deskribapenak eta bestelakoak emanez, armen inguruko gai honetan topatzen dugu, lizentzia eskaturik zuten hiru bizilagun “personas de intachable conducta y buenos antecedentes” direla informatuz azaroaren 30an Hernaniko Goardia Zibilaren destakamenduaren buruari¹⁸². Ezkerreko erakundeen gaineko kontrola osoa areagotuz, azaroaren 8an Tolosako Komandante Militarrek Gipuzkoako Koronel Komandante militarri suspenditutako erakundeen gutunak jaso berri zituela eta segituan igorriko zizkiola agintzen zion¹⁸³. Egoeraren ikuspegi orokor bat izateko autoritate probintzialesetatik informazioak eskatuko dira udaletara. Horren harira gobernadore zibilak azaroaren 20an honako datuak eskatzen zizkion telegrama bidez alkatezari: “numero de muertos y heridos de paisanos de guardia civil seguridad vigilancia y asalto carabineros y ejercito que hayan ocurrido en esa localidad con motivo ultimos sucesos revolucionarios asi como incendios voladuras deterioros armas recogidas municiones explosivos numero de

¹⁷⁷ AMINF, (Archivo Militar Intermedio de la Región Militar Noroeste de El Ferrol, Fondo Logroño. Exp 4087/43).

¹⁷⁸ La Constancia, 1934-10-23.

¹⁷⁹ *Tolosako Udal Artxiboa, A-1 228 (Aktak, 1934 ABR-1935 ENE), Fol. 135v.* Azaroaren 19ko udal sesioan emango dira koartel berri honen inguruko xehetasunak: 14 goardia ezkongabek osatuko dute koartela eta Lasquibar udal arkitektoari 14 logelatako eraikin baten planifikazioa burutzeko eskatuko zaio, 3.986 ptako aurrekontuarekin. *Tolosako Udal Artxiboa, A-1 228 (Aktak, 1934 ABR-1935 ENE), Fol. 151v.*

¹⁸⁰ *Tolosako Udal Artxiboa, Asuntos Políticos, E.5.6., S.F. 1933-1936.*

¹⁸¹ *Tolosako Udal Artxiboa, Gutunak-Alkatetza, 633 E.7.3. 1934, “Alcaldía 1934”, 417r.*

¹⁸² *Tolosako Udal Artxiboa, Gutunak-Alkatetza, 633 E.7.3. 1934, “Alcaldía 1934”, 447r.*

¹⁸³ *Tolosako Udal Artxiboa, Asuntos Políticos, E.5.6., S.F. 1933-1936.*

detenidos y duracion de sucesos”¹⁸⁴. (Puntuazio marken ausentzia eta akats ortografikoak telegrama idazteko moduari dagozkio). Tamalez dokumentu hauetara iristeko aukerarik izan lanaren mugak direla eta baina benetan argigarriak izango dira, autoritateen arteko mezu konfidentzialak direla kontuan hartuta eta egiazko datuetatik hurbil ibiliko direla pentsatuz. “Errepresio” isilago hau ematen den bitartean ahaztu ezinako elementua da tropak Tolosan egongo direla azaroaren 25erarte.

Langileriaren erradikalizazioa gelditzeko bidean ez ditugu autoritate politiko edo militarrek bakarrik topatuko. Industrialariek ere esku hartze zuzena izango dute eta euren metodoekin bideratuko dute langileriaren disziplinamendua. Autoritate politikoekin lotura hertsia izango dute. Ezin ahaztu dezakegu grebaren garaian beraiek direla militarrekin udalean bildu eta langileak lantegietara bidalarazteko eskatzen dietenak edota Goardia Zibilen koartela eraikitzerako orduan euren Kamararen bidez dirua ipintzen lehenak direnak. Armen erreksamenduak egiterako orduan ere gobernadore zibilararen aginduak zuzenean jasoko dituzte. Abenduaren 5ean gobernadoreak alkateari igorritako gutunean zera esaten dio, “indique V. S. a los propietarios gerentes o directores de toda entidad, almacén, fábrica o taller y en general donde haya obreros que den publicidad dicho artículo [armak biltzeko bando baten ingurukoa] en anuncios dando facilidades al propio tiempo para recogida armas y municiones”¹⁸⁵.

Patroiek izango dute errepresio modu eraginkorrago bat: kaleraketak. Tolosako kasuko kaleraketez hitz egingo digu “La Constanciak” urriaren 23an. Gipuzkoa maila osoan ere kaleraketen prozedurak sistematikoak izango dira, “El Díak” (1934-10-26) edota El Diario Vascoren lehen aleak, espreski Iraultzaren erreakzio bezala sortu zen egunkariak (1934-11-27). Fenomenoa benetan interesgarria da eta “La Constanciako” kasu tolosarra eta “Diario Vascon” azaldutako gipuzkoarra bat datoz: kaleraketak eman dira, baina iraultzaileenganako beldurrez patroiek berriro ere onartu egin dituzte langileak hein handi batean. Dirudienez grebalariek patroien zerrenda beltzak egin omen zituzten eta honen beldurraren aurrean mesede eta bestelakoak eginez zerrenda horietatik kanpo egotea eskatzen omen zuten enpresen jabeek. Tamalez Tolosa bezalako paper enpresen zentru batean lantegi hauek sortutako dokumentazioa erraz birziklagarria da eta horrek eta 80-90. hamarkadetako paper industria tolosarraren krisiak enpresa artxibo horien desagerpena eraman du. Hala ere, eta ikerketa honen harira Iban Zalduari, paper sektorearen eta Tolosako kasuaren inguruan hainbat lan egindako historialari, eginiko elkarrizketan bere oharretara jotzea ahalbidetu zidan eta hauen arabera paper enpresa hauetan kaleratuak izan ziren baina hilabete gutxiren baitan berriro ere lanera itzuliko ziren. Gogoratzekoa da baita ere 34ko gertakarien osteko errepresioan nahiko apalak izan zirela autoritateak, ezarritako heriotz zigor bakar bat ere ez betez Gipuzkoan.

Oraindik ere “gerra egoerak” irauten duen hilabete haietan, bando ezberdinen bidez ekinbide errepresiboa bere korpus juridikoa garatzen joango da. Jose Rodriguez, une horretan Tolosako Komandante Militar bezala topatzen den goardia zibilen

¹⁸⁴ *Tolosako Udal Artxiboa, Asuntos Políticos, E.5.6., S.F. 1933-1936.*

¹⁸⁵ *Tolosako Udal Artxiboa, Gutunak-Alkatetza, 633 E.7.3. 1934, “Alcaldía 1934”, 454r.* Mezua ondorengo enpresei eta bizilagunei igorriko zaie: La Guadalupe, La Esperanza, Arritegui Hos. y Ca., Talleres de Tolosa, Tornillería Vascongada, Francisco Arín, Adolfo Llanos, Hijos de R.Basagoitia, Tuercas Zuaznabar, Laborde y Labayen, Nietos de A.Elsegui, Marcos Villanueva, Union Gráfica S.L., Perot S.A., Sucos de Limousin hermanos, Papelera Española, S.A.M., Papelera Arzabalza, La Tolosana, Cartonajes Limousin, Papelera Araxes, La Primitiva, Artes Gráficas Urbieta, José Iztueta, San José Belauntzako-ola, Papelera Elduayen, Pedro Amondarain, Jose M^a Arrese, Chacón y Ansorena, La Engomadora Moderna, Esteban Gorostidi, Hijos de I. Izaguirre, Hijos de I. Pagola, Isaac Lopez, Francisco Maquiegui, O. Mustad y Ca.

kapitainak abenduaren 26an zabalduko bandoan arazo baten berri emango du: orri subertsiboak maiztasun handiegiarekin banatzen dira. Bandoaren arabera atxilotuak izango dira hauek banatzen dituzten pertsonak, orri hauen baten jabegoan aurkitzen diren pertsonak edota orri hauek banatzea baimentzen duten establezimenduetako nagusiak¹⁸⁶. Interesgarria da era berean, klase agintariak egurra eta azenarioa erabiltzeko duen joera. Errepresioa “mesedeekin” konbinatuko da. Udal aktek islatzen digute hau. Azaroaren 11ko udal batzarrean Goiburu zinegotziak langabezian dauden langileei lana emateko Udalak hartu duen erabakia benetan zoriongarria dela aipatuko du¹⁸⁷. Tolosako enpresek langabeentzako diru donaketak ere egingo dituzte, “Mustad y Cía” enpresaren gisan, abenduaren 26ko plenoan aipatzen denez 250 pta bidali dituelarik¹⁸⁸. Egun berean langabeei begirako lan publikoen antolaketaz hitz egingo da eta ekimen hauen fruitu izango da “Beotibar” frontoi estali entzutetsuaren eraiketa eta zabalguneko kale berriak egitea erabakia, hau 1935eko urtarrilaren 2ko plenoan onartuko delarik¹⁸⁹. Horretarako “Caja Ahorros Provincial” erakundeari lan publikoetarako kreditua eskatzea erabakiko da, nahiz eta zinegotzien artean laguntza hori burutu beharko litzatekeenaren inguruan eztabaida sakonak egon. Konponbide honek ordea bere muga erdietsiko du eta urte bereko ekainerako jada langileengatik asko egin dela eta udalak halako zorrari eusteko gaitasunik ez duela adieraziko da¹⁹⁰. 34ko urte neketsuaren ostean Azurzak oporrak eskatuko ditu abenduan¹⁹¹ eta 1935eko apirilaren 17an hirian zabalduko den bandoari jarraiki Gipuzkoako gerra egoera amaituta gelditzen da¹⁹². Tolosaren historiako etapa oso bat itxi da.

-Galtzaileen erantzuna

Baina bada pasarte bat alde batera utzi ezin dena lan hau idazterako orduan. Azaroaren 18ko gertakari batek greba osteko egoeraren tentsio eta kontraesanak islatuko ditu. “Argiak” azaroaren 25ean ematen zuen gertakarien deskribapena, “Tolosa'n gizona erail” izendaturiko artikuluan. Honen arabera Ismael Sanza edo Sanzo (beste egunkarietan Santos¹⁹³ edo Benzo¹⁹⁴ bezala agertuko da; bere autopsiaren ohartarazpen gutunetan berriz Banzo¹⁹⁵ bezala) Juan Rojok (“El Día” Juan Royok¹⁹⁶) hil zuen, bost tiroz “El Díak” dioenez. CNTan ibilitakoak omen ziren biak baina “Argiaren” arabera nahiko aspertuta omen zebilen Ismael erakunde hartan eta “matxinada ondoan, apaizen batek eta eskui aldeko jendeak laguntzen ziotela ta, C.N.T.'tik irten eta Langille Katoliko'en bazkunean sartu omen zan edo beintzat sartzeko omen zebillen”¹⁹⁷. Hilketaren igande artan Rojo, bide batez, Ismaelen arrebaren bikotea zena, Ismaelengana hurbildu omen zen tren geltokira, hau aita agurtzera joan baitzen Iruñearako bidea hartua zuela eta. Bertan, Rojok ea aurreko egunen batean semea bataiatu al zuen galdetu omen zion Ismaeli. Honek Rojori puru bat eskeintzen zion bitartean, azken honek sakeletik pistola bat atera eta bost tiroak

¹⁸⁶ Tolosako Udal Artxiboa, *Asuntos Políticos*, E.5.6., S.F. 1933-1936.

¹⁸⁷ Tolosako Udal Artxiboa, A-1 228 (Aktak, 1934 ABR-1935 ENE), Fol. 151r.

¹⁸⁸ Tolosako Udal Artxiboa, A-1 228 (Aktak, 1934 ABR-1935 ENE), Fol. 175v.

¹⁸⁹ Tolosako Udal Artxiboa, A-1 228 (Aktak, 1934 ABR-1935 ENE), Fol. 180r.

¹⁹⁰ Tolosako Udal Artxiboa, A-1 229 (Aktak, 1935 ENE-SEP) Fol. 133v.

¹⁹¹ Tolosako Udal Artxiboa, A-1 228 (Aktak, 1934 ABR-1935 ENE), Fol.166v.

¹⁹² Tolosako Udal Artxiboa, *Asuntos Políticos*, E.5.6., S.F. 1933-1936.

¹⁹³ La Vanguardia, 1934-11-20.

¹⁹⁴ El Día, 1934-11-20.

¹⁹⁵ Tolosako Udal Artxiboa, *Gutunak-Alkatetza*, 633 E.7.3. 1934, “Alcaldía 1934”, 441r.

¹⁹⁶ El Día, 1934-11-20.

¹⁹⁷ Argia, 1934-11-25.

sartu zizkion. Berehalakoan mikelete batek atxilotu eta epaiketen ostean 30 urtetarako espetxe zigorra ezarri zitzazion¹⁹⁸. “Argiaren” azalpenak ordea mendeku pertsonaleko istorio batetik gehiago duela dirudi bestelako ezerretik baino.

“La Vanguardiaren” kontakizunak ordea beste ikuspegi batzuk ematen dizkigu eta hildakoa ez da hain pertsona inozentetzat agertzen. Ismael Tolosako CNTn postu esanguratsuak lortzera iritsi zen pertsona bat izan zen baina grebako gertakarietan parte hartzeagatik atxilotua izan zen eta erlijiosoren batek gestioak egin zituen hau kartzelatik ateratzeko. Eskerrak emateko iraganeko anarkista honek bere alaba bataiatu zuen eta Sindikatu Katolikoan sartu zen. Baina ez zen horretan geratu. Poliziari informazio eta detaile ezberdinak eman zizkion, mugimenduan parte hartu zutenen inguruan, izenak emanaz. Honen aurrean CNTkoek jipoi bat ematea erabaki zuten eta egunkariaren arabera zozketa bidez hautatuko zen Rojo hori egiteko. Ale berean esaten da ezin jakin daitekeela nola iritsi zen jipoia hilketa bilakatuzera. Lehen momentuan ileapaindegi batean topatu omen zuen baina jende gehiegi zela eta ez zuen ekintza burutu. Gero geltokian zegoenaren berri jaso zuen. Han ea alaba zergatik bataiatu zuen galdetu omen zion eta Ismaelek eskuinei oso eskerturik zegoelako erantzun omen zion. Poxpoloak ateratzeko keinua eginez atera omen zuen pistola eta biktima tirokatu, hiru tiroz, bata buruan, bestea bihotzean eta bestea hankean¹⁹⁹.

Gertakari honek, langile erakunde erradikalenen eta sindikalismo katolikoaren arteko zatiketa erakusteaz gain badu beste interesik, batez ere hilketak eragin zituen atxiloteketei begiratzen badiegu. CNTko kide atxilotuak honakoak izan ziren: Pablo Sanz, Andres Alvarez, Emilio Gurneaga, Julio Pascual, Baltasar Visitacion, Prudencio Bravo, Hilario Garcia, Faustino Garcia, Martin Goñi, Isaac Martin, Gabriel Vargas, Esmeraldo Saez eta Celestino Rojo, hiltzailearen anaia. Era berean, hilketan “konplikaturik” zeudela eta, Agustin Urbistondo Gaztedi Sozialisten presidentea, Manuel eta Pedro Huerta de Diego eta Marcelino Lizando atxilotu ziren. Gainera, Pablo Sanz anarkistaren etxean eginiko erregistroan horma baten atzean bi pistola, lau kargadore, bederatzi dinamita kartutxo eta 300 pistola kartutxo topatuko dira²⁰⁰. Gertakari hauek ikusita susma genezake sozialistek eta anarkistek bat egiteko joera erakutsi zutela bai greba garaian eta bai osteko errepresio amankomunean ere. Era berean anarkistek greban parte hartu izana erakusten dute. Zinez gizarte tolosarreko tentsioak benetan berotu zituen gertakariak izan ziren Urrikoak eta horrexegatik ez da hain harrigarria izango bando errepublikarreko kide batzuek, gerra pizten den garaiean ere, oraindik 34a eta han jasandakoak mendekatu beharra gogoan izatea.

Epilogo – Gerra Kontseiluak eta errepresio berantiarra

"que su familia ni que cojones, tu a la camioneta con los demás, aquí no hay contemplaciones, pues en Octubre tambien nos fastidiasteis vosotros" bota omen zuen Roberto Oriondo Alberdik 1936ean Tolosako eskuindar batzuk kamioira sartzen ari ziren bitartean, bere sententziaren arabera²⁰¹. 34ko errepresioagatik burutu nahi zen “mendekuak” ordea ez zuen denbora luzez iraungo eta berriro ere euren aurka itzuliko zen. Greba hartatik urte batzutara, behin Fronte Popularraren gobernuaren garaiko amnistia jaso ostean, berriro ere 1934ko gertakariak salaketetarako froga bilakatu ziren.

¹⁹⁸ *Ibidem*.

¹⁹⁹ La Vanguardia, 1934-11-20.

²⁰⁰ La Vanguardia, 1934-11-20.

²⁰¹ AMINF. Fondo Logroño. Exp 2206/39

Tolosaren kasuan gertakari haiek aipatzen diren hamalau pertsonaren sententziak iritsi zaizkigu, deskribapen faltak direla eta ia zehaztasun osoz Tolosan gertatutakoak hamabi direla esan badaiteke ere. Sarreran esaten zen bezala ordea halako aipamenak kasualitatezkoak dira eta gainerako gerra kontseiluetan ez agertzeak ez du haien parte hartze eza esan nahi. Juan Amatriain Sevine²⁰², Alfonso Anta Castaños²⁰³, Eugenio Asensio Orueta²⁰⁴, Julián Asensio Orueta²⁰⁵, Victor Asensio Orueta²⁰⁶, José Bueno Vallano²⁰⁷, Lázaro Cascajares Borrego²⁰⁸, Pedro Fernández Ansorena²⁰⁹, Julia García Salazar²¹⁰, Emiliano González Calle²¹¹, Roberto Oriondo Alberdi²¹², Marcos Ortega Alday²¹³, Pedro Genaro Ortiz de Diego²¹⁴ eta Andrés Subtil Sanz²¹⁵ iritsi zaizkigun izenak (filiazio, parte hartzeko modu eta gerrako jokabideak zehaztasun handiagoz 44-45 orrietako taulan). Lagin murrizta da zinez, baina era berean puntu batzuetan argigarria. Emakumeen parte hartzea ikus daiteke, esate baterako, langile mugimenduaren hegal sozialistaren gehiengo presentzia, edota baita CNTaren presentzia apurra ere, bai aktibitate sindikalaren garaian bai ondoren gerrakoan, izan ere, gerra zibilean ere denak topatuko baititugu batailoiren batean borrokan. Informazio murrizta baina hala ere esanguratsua. Armak edota lehergailuak aipatzen dira, esate baterako. Ez dira gertakari makalak Tolosaren kasua aztertzen ari garela kontuan hartuz gero eta 1934an gertakari baketsuak egotzi izan zaizkiola orokorrean ikusten badugu. 70 ingurutan kalkulatzen zituen “El Díako” kazetariak Tolosan atxilotu zituztenak eta tamalez ikerketa honetan ezin izan da horietara hurbildu, benetan informazio aberasgarria emango bailukete.

Iturrien aipatzen genituen mugak muga, autoritate probintzialen eta militarren ikerketekin jarraituz gero gertakariaren narrazioa esanguratsuki hedatuko bailitzateke, ikerketaren aurretik planteatzen zen hipotesietako bat betetzat jo daitekeela esan daitekeela iruditzen zait, Tolosan 1934ko Urriaren eman ziren gertakariak greba baketsu bat bezala ezin direla definitu alegia. Horretarako jo da hain zuzen Tolosaren aurreko historiara. Hiri industrial bat erakutsi nahi izan da, probintziako lehenetarikoa eta baita zentzu berean ere langile mugimenduari begira, bere adar sozialistarekin eta anarkistarekin gainera. Errestaurazio garaian erradikalizaziorako joera handia erakutsi digu mugimendu honek eta era berean, Tolosako mapa politikoa karlisten feudo politiko trinko bat izatetik urrun indar politikoen aniztasuneko testuinguru bat dela erakutsi nahi izan da. Aldi berean kontuan hartu nahi izan dira estatu mailan garrantzitsuak izan ziren langileen buruzagiek (Enrique de Francisco, Galo Díez) Tolosan izandako esku hartzea eta baita gerra zibilari begira ere tolosarrek frontera joateko erakutsi zuten joera. Zentzu honetan Fusik edota De la Granjak proposaturiko sailkapenetan gune baketsutzat agertzen bada ere Tolosako gertakariak Donostiako, Pasaiako edota Hernaniko gertakarietatik gertuago daudela proposatu nahi da eta erradikalizazio handiagorik eman izan ez bazen ziurrenik Tolosako mugimenduaren errepresioa bizkortasunez

²⁰² AMINF. Fondo Santander. Exp 481/37

²⁰³ AMINF. Fondo Logroño. Exp 4087/43

²⁰⁴ AMINF. Fondo Bilbao, exp. n° 1926/37

²⁰⁵ AMINF. Fondo Santander, exp n° 126/37

²⁰⁶ AMINF. Fondo Santander, exp n° 126/37

²⁰⁷ AMINF. Fondo Logroño, exp 948/43

²⁰⁸ AMINF, fondo Santander, exp 126/37

²⁰⁹ AMINF. Fondo Santander /38

²¹⁰ AMINF. Fondo Logroño, exp 1725/37

²¹¹ AMINF. Fondo Santander, exp 126/37

²¹² AMINF. Fondo Logroño. Exp 2206/39

²¹³ AMINF. Fondo Bilbao. exp 11245/38

²¹⁴ AMINF. Fondo San Sebastián. exp 365

²¹⁵ AMINF. Fondo Santander. Exp 23/37

bideraturiko eginkizuna izan zelako izan zela. Sailkapen hauen zehaztasun falta ziurrenik 1934ko Euskal Herria zehaztasunez ikertu ez dela izango da eta ikerketa berriak eta sakonagoak, euskal kasu osoa orokorrean hartuz, ez dira burutu, haseran genion bezala Fusiren 80. hamarkadako testua eta De la Granjarena, aurrekoaren oso antzekoa dena, lan bakarrak direlarik. Horrexegatik ikerketa lokal hauek eman dezakete argia aspektu horietan. Tolosa tradizional baketsuaren ideia ezin da sostengatu. Gerora Tolosan emango den errepresioa ez dator bat greba baketsu batekin. Era berean, ikerketa egin ahala euskal historiografiarentzat eztabaidagai izan diren beste auzi batzuk ekarri dira ona, nazionalisten eta anarkisten parte hartzearena, eta aurretik plazaratutako frogetatik badirudi oso litekeena dela hauek Tolosan behinik behin parte hartu izana. Fusik nazionalismoaren parte hartze eza (eta ez gara nazionalismoaren goi karguen inguruan bakarrik ari) azaltzerako orduan Gipuzkoan EAJren egoitzak ez zirela klausuratuak izan aipatzen du. Gainerako kasuak ez dira lan honetan ikertu, baina Tolosan behinik behin badirudi parte hartu zutela. Aldi berean emakumeen parte hartzea, egunkarietako aipamenetan aberraziorik handiena bezala agertzen dena, edota goardia municipal batzuek ere grebalariei lagundu izanaren ustea elementu interesgarriak direla iruditzen da.

Eibarrek eta Arrasatek bere garaian estali izan bazuten, Gerra Zibilaren historiak are gehiago estaliko ditu Tolosako grebaren gora-beherak. Hain zuzen ere, lan honen helburu nagusietariko bat, Tolosako Historiaren hutsarte hori betetzea izan da, garaikideentzat esperientzia benetan traumatikoa izan zena baina memoria sozial selektiboak alde batera utzi duena. Ikuspuntu historiografiko batetik ordea ahaztu ezinezko gertakariak dira, 1934ko Urriak ematen baitu, eta Tolosaren kasuan badirudi bereziki baietz, 1936ko uztaila ulertzeko bidea.

TAULA 1936tik aurrerako Gerra Kontseiluetan epaitutako 1934ko gertakarietako grebalariaik

ABIZENA	IZENA	Sententzia Data	ADINA 1934an	JAIOTERRIA	SEXUA	FILIAZIO POLITIKOA	KARGUA	FILIAZIO SINDIKALA	LANBIDEA	1934	KONTSEJU MILITARRAREN AKUSAZIOA	GERRA Atxiloketak burutu, armekin kaleetan Carlos Marx batailoia (UGT), Rusia batailoia (JSU) Carlos Marx batailoia (UGT), Rusia batailoia (JSU) Carlos Marx batailoia (UGT), Rusia batailoia (JSU) Rusia batailoia (JSU), Ingenieros batailoia Carlos Marx batailoia (UGT), Rusia batailoia (JSU) Carlos Marx batailoia (UGT), Rusia batailoia (JSU)	SENTENTZIA
Amatriain Sevine	Juan	13/01/1938	34	Artajona	G	PSOE	Dirigente		Papelero	Gertakarietan partehartzaile, armen erabilera ez da zehazten 1934an edota 1936an den	Rebelión militar		Biziarteko kartzela zigorra
De Anta Castaños	Alfonso	28/10/1943	29	Jandrina, Zamora	G	AST-PSOE		UGT	Sargento de la Legion	Atxilotua (Lekua ez da zehazten)	Adhesión a la rebelión militar		30 urteko kartzela zigorra
Asensio Orueta	Eugenio	17/12/1937	26	Barakaldo	G	JSU		Federación Gráfica-UGT	Litógrafo	Preso gertakarien ondorioz	Auxilio a la rebelión militar		12 urteko kartzela zigorra
Asensio Orueta	Julian	29/09/1937	23	Arrigorriaga	G	AST-PSOE		UGT	Papelero	Armekin esku hartu	Auxilio a la rebelión militar		12 urteko kartzela zigorra
Asensio Orueta	Victor	02/11/1937	21	Arrigorriaga	G	PSOE		UGT	Litógrafo	Armekin esku hartu	Rebelión militar		12 urteko kartzela zigorra
Bueno Vallano	Jose	21/03/1944	28	Cabrera, Soria	G	AST-PSOE	Propagandista marxista	UGT		Gertakarietan partehartzaile	Rebelión militar		30 urteko kartzela zigorra
Cascajares Borrego	Lazaro	02/11/1937-23/11/1937	20	Tolosa	G		Propagandista	UGT-CNT	Metalúrgico	Gertakarietan partehartzaile	Rebelión militar/Auxilio a la rebelión		12 urteko kartzela zigorra
Fernandez Ansorena	Pedro	08/01/1938	25	Lizarra	G	AST-JSU-PSOE				Prozesatua gertakarien ondorioz	Adhesión a la rebelión militar		Biziarteko kartzela zigorra

García Salazar	Julia	25/01/1938	30		E			UGT	Papelero	Lanean koakzioak	Auxilio a la rebelión militar	Carlos Marx batailoia (UGT), Rusia batailoia (JSU)	15 urteko kartzela zigorra
González Calle	Emiliano	02/11/1937	25	Donostia	G	AST-JSU-PSOE		UGT	Papelero	Armekin esku hartu	Auxilio a la rebelión militar	Carlos Marx batailoia (UGT), Rusia batailoia (JSU)	12 urteko kartzela zigorra
Oriundo Alberdi	Roberto	18/06/1940	25	Tolosa	G			UGT-CNT	Papelero		Auxilio a la rebelión militar	Azaña batailoia (IR) Batailoi Internazionala (CNT), Isaac Puente batailoia (CNT)	12 urteko kartzela zigorra
Ortega Alday	Marcos	03/10/1939	15	Villabona	G		Fundador (Villabona)	UGT		Preso, eta Amnistiagatik askatua (Lekua ez da zehazten Villabona edo Tolosa den)	Auxilio a la rebelión militar		12 urteko kartzela zigorra
Ortiz de Diego	Pedro Genaro	09/10/1938	52	Riva, Cantabria	G			CNT	Papelero	Atxilotua	Auxilio a la rebelión militar		12 urteko kartzela zigorra
Subtil Sanz	Andres	10/09/1937	24	Fuentemilanos, Segovia	G	AST-JSU-PSOE	Dirigente	UGT	Papelero	Lehergailuen tenentziagatik kondenatua	Rebelión militar	Carlos Marx batailoia (UGT), Rusia batailoia (JSU)	Heriotz zigorra

BIBLIOGRAFIA

- Barruso Barés, Pedro, “El origen del socialismo en Guipúzcoa (1871-1923)” in Agrupación Socialista de Tolosa, *Cien años de socialismo en Tolosa, 1891-1991*, Tolosa, Agrupación Socialista de Tolosa, 1991, 21-20 orr..
- Barruso Barés, Pedro, *El movimiento obrero en Guipúzcoa durante la II República. Organizaciones obreras y dinámica sindical*, Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia, 1996.
- Blazquez Brímez, “Primer centenario 1891-1991 Agrupación Socialista de Tolosa”, in Agrupación Socialista de Tolosa, *Cien años de socialismo en Tolosa, 1891-1991*, Tolosa, Agrupación Socialista de Tolosa, 1991, 11-20 orr.
- Carreras, Albert, eta Tafunell, Xavier (koord), *Estadísticas históricas de España: siglos XIX-XX*, Bilbo, BBVA Fundazio, 2005 (2. argit.).
- Casanova, Julián, *Historia de España v.8: República y guerra civil*, Madril, Crítica/Marcial Pons, 2007, in Fontana, Josep eta Villares, Ramón (zuz.), *Historia de España* Bilduma, Crítica/Marcial Pons.
- Castells, Luis, “Los trabajadores en el País Vasco (1880-1914)”, *Historia contemporánea*, 4. alea, 1990, 59-74 orr.
- CNT Gipuzkoa, *Los orígenes de la CNT en el País Vasco*, <http://gipuzkoa.cnt.es/spip.php?article292>
- Egaña, Iñaki, *1936. Gerra Zibila Euskal Herrian. IV. Tomoa: Gerra Zibila Gipuzkoan*, Andoain, Aralar Liburuak, 1998.
- Errazkin Agirrezabala, Mikel, eta Saizar Arostegi, Joxemi, *1936ko gerrako oroitzapenak Tolosaldean eta Leitzaldean*, Tolosa, Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza, Galtzaundi Euskara Taldea, 2008.
- Etxaniz, Jose Ángel, “Gernika-Lumo 1934. De un verano caliente a un octubre revolucionario”, *Aldaba* (Gernika), 1994 eta 1995, 71, 72 eta 73 aleak.
- Fusi, Juan Pablo, *Política obrera en el País Vasco, 1880-1923*, Madrid, Ediciones Turner, 1975.
- Fusi Aizpurua, Juan Pablo, “Nacionalismo y revolución: Octubre de 1934 en el País Vasco”, in Jackson, G. (koautorea), *Octubre 1934: Cincuenta años para la reflexión*, Madrid, Siglo XXI, 1985, 177-198 orr.
- Granja Sainz, José Luis de, *El oasis vasco, el nacimiento de Euskadi en la República y la Guerra Civil*, Madril, Tecnos, 2007.
- Gutierrez Arosa, Jesús, *La insurrección de octubre del 34 y la II República en Eibar*, Eibar, Eibarko Udala, 2001.
- Miralles, Ricardo, *El socialismo vasco durante la II República*, Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitarapen Zerbitzua, 1988.
- Gil Pecharromán, Julio, *Historia de la Segunda República Española, 1931-1936*, Madril, Biblioteca Nueva, 2002.
- Riquer, Borja, *Historia de España v.9: La dictadura de Franco*, Madril, Crítica/Marcial Pons, 2010, in Fontana, Josep eta Villares, Ramón (zuz.), *Historia de España* Bilduma, Crítica/Marcial Pons.
- Rivera, Antonio, *La ciudad levítica*, Gasteiz, Arabako Foru Aldundia, 1992.
- Rodríguez Ranz, Jose Antonio, *Guipuzcoa y San Sebastian en las elecciones de la II República*, Donostia, Kutxa Fundazioa, 1994.
- Rodríguez Ranz, Jose Antonio, eta Garcia Ocampo, Maria Begoña, “II. Errepublikak: Euskal abertzaletasunaren ilusioa, dinamismoa eta gorakada”, in Rodríguez Ranz, Jose Antonio (koord.), *Tolosa Abertzaletasunaren Bihotza*, Bilbo, Sabino Arana Fundazioa, 1995, 79-155 orr.

- Rosal, Amaro del, *1934: El movimiento revolucionario de Octubre*, Madril, Akal, 1983.
- Ruzafa, Rafael, “Los trabajadores vascos a finales del siglo XIX”, *Cuadernos de Alzate: revista vasca de la cultura y las ideas*, 21.alea, 1999, 151-174 orr.
- Segurola Jiménez, Marco, *Evolución del espacio industrial de Tolosa*, Vasconia, 24.alea, 1996, 193-215 orr.
- Tuñón de Lara, Manuel (zuz.), *Historia de España 9: La crisis del Estado: Dictadura, República, Guerra (1923-1939)*, Bartzelona, Labor, 1985.
- Villanueva Tellería, José Mari, “Enrique de Francisco Jimenez, 1878-1957” in Agrupación Socialista de Tolosa, *Cien años de socialismo en Tolosa, 1891-1991*, Tolosa, Agrupación Socialista de Tolosa, 1991, 31-65 orr.
- Zaldua, Iban, “Paperaren historia eta eboluzioa (munduan eta Tolosan)” in Zumardi, *Paperaren papera. El papel del papel*, Tolosa, C.I.T., 2000, 17-35 orr.
- Zavala, Federico de, eta Garmendia Larrañaga, Juan, *Monografía histórica de la villa de Tolosa*, Donostia, Eusko Ikaskuntza, 2007.

Sareko baliabideak:

- www.euskomedia.org/aunamendi
- <http://www.intxorta.org> (“Oktubradaren” memoriaren errekupeziorako ekimen baten sustatzaile)
- www.rae.es
- gipuzkoa.cnt.es
- www.inguma.org

Artxiboak eta hemerotekak:

- Tolosako Udal Artxiboa
- Donostiako Udal Hemeroteka
- Archivo Militar Intermedio de la Región Militar Noroeste de El Ferrol